

ttüpi-ttapa

1996ko uztailak 18 • 186. zenbakia

CULTUR 96

**Turismoa eta Kultura
ezkontarazi nahi dituzte**



Juan Carlos GARRO:
**«ATZERRIKO
PROBETAN ONGI
IBILTZEAREKIN
EGITEN DUT AMETS»**


BAZTAN ALTZARIAK



FAGOR
SUKALDE
ALTZARIAK



6
urteko
garantia



Haize Egokitua dohainik edo 150.000 Pta.ko deskontua

Ero batzuk zaretela diote. Ez zaretela segundu bakar bat ere geldirik egoten, egun osoan harat honatean zabiltzatela. Jende gazteak sekulako sasoia eta buru-arina izaten duzuela.

Bainan zuk badakizu ez dela horrela. Zure lagunak dira duzun gauzarik garrantzitsuen eta ez zenituzke galdu nahi ezta deusengatik ere.

Horrexegatik aukeratu duzu Polo: saihets indartuak, ABS, Airbag bikoitza, guzia agertzen duen atzeranzko ispilua, direkzio-zutabe teleskopikoa... Ekipamendu, erosotasun, ahalmen eta zabaltasun haundienari ukorik egin gabe, gozo-goza egon zaitezten.

Zeren zure lagunak, zure Poloak eta zuk zeronek bide luzea duzue aitzinean.

Badago Polo bat 1.259.000 Pta. aitzin

SAMPI ARAGON

Leitzako errepidea • ☎ 450354 / 450759

D O N E Z T E B E

 **Polo**
Zure Poloak eta zu

DATUAK.....

❖ Bere etxean hartzen gaituenean, Granadako Sierra Nevadatik etorri berria dugu Juan Carlos Garro txirrindulari beratarra.

❖ Etxe zoragarria, xokorik izkutuena ere Juan Carlosek mendi bizikletarekin irabazitako trofeoekin apaindutako etxea.

❖ Atlantarako Olinpiadetara joateko aukeratu ez izanak penatu dio pixka bat, emaitzak kontutan harturik bertan egoteko leku bat zuela pentsatzen baitzuen.

Juan Carlos GARRO: «Atzerriko probetan ongi ibiltzearekin egiten dut amets»

ZER MODUZ DOAIE AURTENGO DENBORALDIA?


Nahiko denboraldi polita daramat nere ustetan. Bertze proben artean 'Coronas' Opena irabazi dut, eta, estatu mailako probarik garrantzitsuena dela kontuan hartuz, pozik egoteko modukoa da. Beharbada, Atlantara joateko aukeratu ez izanak penatu nau pixka bat, emaitzak kontutan harturik bertan egoteko leku bat banuela pentsatzen dudalako.

AURTEN BAKAR XAMARRA IKUSI ZAITUGU ZIRKUITOETAN, ZURE TALDEKIDEEN LAGUNTZA HAUNDIRIK GABE. ZER GERTATU DA?

Iaz Martinez Costak egin zuen denboraldia ikusita, punta-puntan ibiltzekoak ginen aurtenera biak, baina, arazo fisiko larriak izan ditu eta ezin izan du hurbiletik ere bere maila erakutsi. Horrek bakarrik utzi nau Orbea bezalako talde indartsuen aitzinean.

NOLA IKUSTEN DUZU GOI MAILAKO KONPETIZIOAREN ETORKIZUNA?

Mendi bizikletak azken urteotan izan duen gorakadak goiena jo duela ematen du, baina halere, heldu den urtean sponsor berriak



agertuko direla pentsatzen dut, telebistak horretan zeresan haundia izanen duelarik.

ETA ZURE ETORKIZUNA?

Alde horretatik ere lasai nago, heldu den urterako eskeintza pare bat badut eta. Bata, Grisley taldean jarraitzeko, taldea indartuz beti ere, eta bertzea,

Orbea taldera itzultzeko. Hor nabil orain biek solasean eta nerezat hobereana aukeratzeko jakitea espero dut.

NOIZ BUKATUKO DUZU DENBORALDIA?

Joan den urtean baino aunitzez lehenago gelditu nahi dut, neguan hagitzen atsedean motza hartu nuen eta. Dagoneko hankak nekatuegiak sumatzen ditut eta tendinitisa ere agertzen hasia dut tarteka. Hamabortz eguneko atsedena hartuko dut eta abuztuaren 27tik

irailaren 4ra Frantziara joanen naiz bertako mendi bizikleta Tourrean parte hartzera.

AMETS BAT?

Poliki-poliki joatearen laguna naiz ni, amets egiteak baino gehiago balio du eguneroko lan egiteak. Halere, aitortu behar dut atzerrian ongi ibiltzea aunitz gustatuko litzaidakeela, baina hori zaila dugu momentuz, hemen egiten diren probak kanpokoak baino ordubete motzagoak diren bitartean.

» *«Mendi bizikletak azken urteotan izan duen gorakadak goiena jo duela ematen du, baina halere, heldu den urtean sponsor berriak agertuko direla pentsatzen dut»*



Cultur'96

TURISMOA ETA KULTURA EZKONTARAZI NAHI DITUZTE

Abuztuaren 1etik irailaren 1era Kultur'96 izeneko programa burutuko da Elizondon eta Beran. Lehen aldia da Nafarroako Gobernuak bi Departamentuk eta Bertiz Partzuergo Turistikoak gisa honetako programa antolatu dutela turisten asti librean hornitzeko.

Testuinguru honetan ezagutu da Kultur Zurkaitza Elkartearen salaketa bikoitza: alde batetik Partzuergoko bazkide gisa egiten dutena, eta bestetik, urte osoan kulturgintzan diharduten talde bezala egiten dutena.

d antza, musika, pintura, eskulangintza, zine eta kirol ikuskinak izanen dira ia egunero Cultur'96 programaren barrenean, abuztuaren 1etik 14ra Elizondon eta abuztuaren 19tik irailaren 1era Beran.

Horretaz gain, abuztu osoan Berako Kultur Etxean ikusgai egonen da *Bidasoako paisajistak*, gaur izeneko erakusketa, eta uztailearen bigarren hamabostaldian Donezteben egiteko eta iraileko lehenbizikoan Lesakan egiteko ekitaldi gehiago antolatu ditu Partzuergoak. Pedro Burillo, Hezkuntza

eta Kultura kontseilariak programaren aurkezpenean adierazi zuenez, «*ikuskitzuzun guztiak kalidadeari begiratu eta bertako kulturarekin duten loturagatik aukeratu dira*». Zentzu horretan, esperientzia hau proba gisa egingen dela gaineratu zuen Burillok, lehen aldia baita Nafarroako Gobernuko bi departamentu eta Partzuergo Turistiko baten laguntzarekin horrelako zerbitzu antolatua dela. Gerora begira, bertze erakunde batzuren partehartzeari irekita omen daude eta ekimena Nafarroatik kanpo ere ezagutzera eman nahi omen dute, horrela, Europako Batasuneko programaren batean sartu ahal izateko.

35.000 TURISTA IAZ

Iñaki Cabases Industria, Merkataritza eta Turismo kontseilariak, azpimarratu zuen Nafarroako mendialdeak turismorako duen jarrera, eta gogoratu zuen 20.000 biztanle inguru bizi diren Baztan-Bidasoara 35.000 bisitari etorri zirela 1995ean. Patxi Oartzabal Baztango alkatea eta Bertiz Partzuergo Turistikoko lehendakariak, berriz, eskertu zuen bi kontseilaritza hauek egindako ahalegina, bainan izan zuen kritika bat: «*Hurrengoan aukera gehiago eman diezagutela egitarauaren osaketan parte hartzeko*».

ZONA KULTUR ELKARTEK PROTESTA EGIN DUTE

Baztan-Bidasoaldeko zazpi taldek osatzen dute Kultur Zurkaitza Elkarte. Berriki, «*Cultur'96: Erne heldu zaigunari!*» izenburuarekin prentsa oharra bidali dute komunikabideetara bere desadostasuna agertuz, eta orrailde honetan bertan irakurri ahal dituzte dituzten arrazoiak. ■

Cultur 96: Erne heldu zaigunari!

Kultur Zurkaitzak 'Cultur 96' programa salatu nahi du, guttienez, bi ikuspegitik begiratu:

1.-Partzuergo Turistikoren bazkide gisa lehenik. Aspalditik kezkatuak gabil-tza turismo masifikatuak kulturari sortu ahal dizkion kalte ugarietaz, eta Partzuergoko bazkide garen neurrian, saiatu gara gure kezka eta ikuspegiak Administrazio Kontseiluan kontutan hartuak izan daitezten turis-mopolitikak zehazterakoan. Aldiberean, behin eta berriz eskatu dugu ofizialki zehaztu eta argitzea zein den, Partzuergoak, 'nahi duen turis-moa'. Hori gauzatzeko, ihardunaldi batzuk egiteko proposamena ere mahai gainean jarri genuen bere garaian.

Eta modu honetan, denbora pasatzen ari da, hoi-ek guziak argitu gabe segitzen dute, eta gero eta argiago dago Nafarroako Gobernuak eta Bertiz Partzuergo Turistikoa turismoa masifikatzearen aldeko apostua egin dutela, itsu-itsuan eta buru-



Juainas PAUL

Kultur Zurkaitza elkarteko ordezkaria

hauste haundirik gabe. Nola ulertu bertzenaz Nafarroako Gobernutik 'Cultur 96' bezalako programak martxan jartzea eta Bertiz Partzuergo Turistikoak bultzatu eta bi milioko dirutzarekin finantziaztea. Programaren helburua abuztuan hemen dabil-tzan turistei ikuskizunak eskeini eta denbora gehiagoz hemen atxikitzea baldin bada, arras eskaxa eta desegokia iduritzen zaigu. Are gehi-

ago, kontutan hartzen bada aldiberean Festivals de Navarra - Nafarroako Jaialdi-etan izen eta kalidade haundi-goko ikuskizunak dau-dela hurbileko herrietan, eta jakina denean, turisten jar-rerra tipikoa dela autoa har-tu eta kilometroak egitea.

2.- Bigarrenik, ezaguna da Kultur Zurkaitzan biltzen garen Kultur Elkarte, Eus-kara Talde eta Herri Komuni-kabideok urte osoan gabil-tzala bertan bizi garenon al-deko kultur gintza lanean. Eta ikuspegi honetatik begira-tuz ageri da 'agrabio konpa-ratiborik' larriena. Errekur-tso gehiago jarri dituzte hila-bete bakar batez turisten den-bora librea ikuskizunez bete-tzeko (9.000.000 Pta), berta-ko 'aborigenoi', eskale mo-duan ibili ondotik, urte oso-an eskeintzen zaigunaren al-dean. Eta horren adibide, tur-istendako antolatut dituzten ikuskizun hauetarako sarre-ak dohainik izatea, eta segu-ruenik, euskal dantzak eta herri kirolak ematerakoan mikrofonoak erdalduntzea.

«Aurtengo egitarauak izan ditzakeen oker eta zuzenen azterketak aurrerantzean hartuko diren planteamenduak bideratzeko balio izanen du»

ZER IDURITZEN ZAIZU CULTUR'96 PROGRAMA?

Cultur'96 aurtengo udarako 'proba pilotu' bezala antolatu den kultur programa da. Honekin lortu nahi dena udan zonaldea kulturalki bizkortzea da. Aurtengo egitarauak izan ditzakeen oker eta zuzenen azterketak aurrerantzean hartuko diren planteamenduak bideratzeko balio izanen du (antolatzearen beharra edo ez, zonalde eta urte guzira zabaldu edo ez, bertatik programazioa prestatu, ekitaldi konkretu batzuk landu...).

BERTAKO ERREALIDADE SOZIO-KULTURALA TURISTEI EZAGUTARAZTEKO BALIAGARRIA DELA USATE DUZU?

Bertako errealitate sozio-kulturala turistei ezagu-

tarazteko baino gehiago, hutsune bat betetzeko balio izanen du, eta uda partean hainbat ekitaldiz zonaldea girotzeko. Bertalde, Cultur 96 programaz aparte, bai Donezteben uztailearen bigarren hamabostaldian, eta bai Lesakan irailaren lehendabiziko hamabostaldian, hainbat ekitaldi antolatu edo antolatzen ari da Partzuergoa.



Manolo LIZARDI

Bertiz Partzuergo Turistikoko gerentea

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85
FRANKEO ITUNDUA: 34/79
TIRADA: 6.300 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE
HERRIKO ETXEO PLAZA, 1
31780 BERA
TFNOA: 63 11 88
FAXA: 63 12 91

uzendaria: Joxemanuel Iri-
goien. **Publizitatea:** Miren Kar-
nele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor
Arozena, Joxemanuel Irigoien.
Administrazioa: Amaia Goia.
Erredakzio taldea: Pello Ape-
zetxea, Juainas Paul, Kristina
Boan, Bittori Telletxea.
Erriemaileak: Joseba Azpiroz,
Esteban Arozena, Juana Mari
Aizabar, Ainhoa Mutuberria, Iban
Gasi, Txema Aldabe, Pello Etxe-
ria, Txema Urroz, Patxi Otxan-
orena, Ixabel Maia, Josune Etxe-
este, Pablo Mendiburu, Joseba
Aparabide, Alizia Olaizola, Margari
Arenas, Koro Irazoki, Mixel
Berendiain, Jacqueline, Elixabet
Aizurri, Garbiñe Maiz, Oskar
Arozena, Alberto Sansiñena,
Pello Apezetxea, Aitor Arozena,
Kristina Boan.

kolaboratzaileak: EHNE Nafa-
roa, Patxi Lasa, Mikel Bezunar-
ea, Joxe Javier Etxeberria,
Aitor Zabala...

primategia: Graficas Ona.

ttipi-ttapa ez du bere gain har-
ten derrigorrez, aldizkarian adie-
zitatiko erranen eta erizien eran-
tzukizunik.

arakunde Laguntzaileak: Bera,
Goizueta, Areso, Baztan,
Zugarramurdi eta
Bortzirietako
Mankomunitatea,
Zugarramurdiko Akelarre
Elkartea...



Aldizkari honek Nafarroako
Gobernuaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEO GAIA

Nola ikusten duzu Nafarroako egoera politikoa?

Erantzuna airean dago



Miguel ASIAIN
Langilea. Elizondoa

Gure politika tti-
ki honi gero eta
antza gehiago an-
tzematen zaio aspalditako bai-
le saioekin, eta jakina, bailea-
ren ondoren anitzetan ezkon-
tza. Hortxe, herriko plazan di-
tugu guziak. Alli dugu mun-
du guziak preziatzen duen
emaztegaia. Senargaiak utzi-
rik (desodoranteak abandona-
tu baitzion) hasi da berriro bai-
le saioan. Etxefuerteko lehen-
gusu propioak eskatu diolehen
bailea; oraitarazi dio, gainera,
famiario etxean elkarrekin
egonikako denbora. Maite, mai-
te igoal ez, baina zenbaitetan
maitasuna ez da dena ezkon-
tza batean, eta gehiago direla
tartean dauden interesak (en-
kontz saria, opariak, etorkizun
segurua...) maitasuna bera bai-
no.

Tartean sartu zaio lehengo se-
nargaia, beragatik elkarrekin
segituko zutela, baina Madrilen
duen aitak ez dio uzten gehi-
ago ateratzera beldur baita be-
rriro ez ote dion desodorante-
ak abandonatuko.

Zeinek eraman emaztegai pre-
ziatua? Erantzuna, harako ha-
rek kantatzen zuen gisan, ai-
rean dago.

Erreakzionatzeko tenorea ailegatu da



Blanka TELLETXEA
Etxekoandrea. Lesaka

Azkeneko urte
hauetan UPN eta
PSOEren esku
egon da Nafarroako aginte po-
litiko nagusia. Orain Otanoren
korruptzio dela eta, PSOEek
agintean eskuhartze zuzena
edukitzeko aukera berriro gal-
duko duela eta, zera burura-
tu zait:

1.- PSOEek estatuan eta Nafa-
rroan boterea hartu zuenean
esperantza txiki bat sortu ze-
la, talde aurrerakoi gisa joko-
tuko zuelakoan. Nafarroan, ba-
tez ere, hobe zen beraiek ego-
tea UPN aldagaitz hori egotea
baino. Baina Otanorena jakin
zenez, aspaldi agortzen ha-
sia zen esperantzari bertze de-
zepzio tanta erantsi zitzaion.
2.- Hala ere, uste dut erre-
fexionatzen hasita ezin dela ze-
ra pentsatu: 'egin dezatela nahi
dutena. Denak berdina dira eta
nik ez dut deustan parte hartu-
ko'. Azken finean politikoe-
k, gure eguneroko bizitzan era-
gina edukiko duten gauza pi-
la erabakitzen dute. Eta erre-
akzionatu beharra dugu. Nola,
noiz, zertan? Bakoitzak ikusi
beharko du. Bainan argi dago
horrelako politikoen eskuetan
ezin dugula deus utzi.

Berrantolatzen ari ote da nafarroako eskuina?



Miguel J. LEKUONA
Zinegotzia. Goizueta

PSOE, CDN eta
EAK legealdia
elkarrekin go-
bernatzeko akordioa lortu eta
'aulki' preziatuan Javier Ota-
no eseri zenetik, giro politi-
koa airean egon da. Malón,
Urralburu, Aragón, Roldán
eta Otanori buruz prentsak
eguneroko eskaini dizkigun be-
rriek lagundu dute horretan.
Eurek ziren Estatua eta nahi
zutenerako legeaz baliatu di-
ra, eta behar izanez gero al-
datu ere egin dute (Itoiz...).
Eskura zituzten tresna guziak
erabili dituzte; Polizia erre-
primitzeko, Justizia euren bu-
rria babesteko, Komunikabi-
deak iritzi publikoa maneia-
tzeko... Azken finean, ez du-
te inoren aurrean azalpenik
emateko beharrik ikusten.
(...)Atsegin dut guziak politi-
katik urrun ikustea, eta batez
ere diru publikoetako kaxoie-
tatik. Ez nuke nahi zigorrik
gabe gelditzea.
Etorkizuna ez dirudi polita-
goa datorrenik. UPNk auke-
raz baliatu nahiko du eta hor-
txe du CDN paktatzeko eta
eskuina berrosatzeko prest.
Eta guzia, 'aulki' preziatua
eskuragarriago izateko.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

• Egunero, arratsaldeko 4,30etatik 8etara.
• Asteazkenetan, goizeko 10etatik aitzinera ere bai.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 63 74 04

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI, S.L., Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekalde Behean.

- ☞ Langile Autonomoak
- ☞ Nekazariak eta mendi langileak
- ☞ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☞ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☞ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☞ Diru-laguntza ezberdinak
- ☞ Kontabilitateak
- ☞ IVA eta IRPF
- ☞ Errenta aitortpenak
- ☞ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ☞ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

BOTA BERTSOA



Nafarroako egoera instituzionala

Manolo AROZENA

Doinua: Orreagako behiena

Roldan izan zen lehendabiziko sagar ustel ta gazia Urralburura gero pasa zen lapur haundien auzia gero Otano lehendakaria Nafarroan desgrazia Hirukoitzaren laguntzarekin egin nahi zuten guzia norabidea galduta dago etorkizuna nahasia lorategia nahiz ez zen inoiz orain erabat sasia eta gainera erraten dute hau dela demokrazia.

Orain Sanz Jaunak izan dezake agian bere aukera jende aurrean erakusten du gizon txintxoan tankera baina, ai Jesus!, del Burgorekin egiten badu aurrera Nafarroaren ilusioak joanen dira lurpera nor diren hoiek jakinen dugu nahiko epe laburrera konfidantza eske ez betoz arren euskaldunaren hurrera alde haundirik ez baita izaten lapurretik lapurrera.

IRAKURLEAK MINTZO

Londres-etik

Kaixo TTIPI-TTAPAN lan egiten duzuen guztioi. Londresetik idazten dizuet baina ni Igantziarra naiz. Hemen ere TTIPI-TTAPA hartzen dugu, eta ze poza! Hemen ari naiz nire lagun poloniar, nederlandar, japoniar, kroaziar... eta abarrei gure hizkuntza eta ohiturak erakusten. Eskolara eramaten dut errebista eta denak aho zabalik gelditzen dira. Bueno! Mesede bat eskatu nahi dut, faborez. Hilabete honen 17an eta 25ean nire ahizparen eta Berako lagun baten urtebetetzeak dira. Hemendik agurtu nahi nituzke nire ahizpa Ana eta bere laguna Mañolo. Egun ona pasa dezatela biok. P.D. Eskerrik asko Igantziako Oskar Txoperenari TTIPI-TTAPA bidaltzeagatik.

KUNDE



Leitzako harrobiei buruzko herri kontsulta dela eta

Harrigarria badirudi ere, jadanik 5 hilabete igaro dira Leitzako udal-batzarrean Albiño eta Kordobango harrobien arazoari aurre egiteko herri kontsulta onartu zenetik. Hasera batean, erabakia pozgarria suertatu bazen

ere, ez bakarrik aurreko legegaldietan aurrera eraman zen politika apurtu zelako, baita arazo eragingarri eta zehatz honetan herritarrok gure iritzia eman dezakegulako, denboraren poderioz, poz hura poliki-poliki dezepzio bilakatu da. Hainbeste denbora igaro ondoren fetxa ezarri ez izanak eman dezake hainbat hausnarketa egiteko aukerarik. Dirudienez, Eusko Alkartasunak Albiñoako harrobiari



buruzko kontsulta egin nahi du soilik, aitzakitzat udalaren Kordobango harrobia bideratzeko eskaerarik ez dela aurkeztu argudiatuz. Jarrera benetan ulertezina bezain penagarria da lehen aipatu Batzarrean bi harrobien kontsultari baiezkoa eman eta bapateko aldaketa honek ba ote du atzetik interes izkukurik? Badakizue Kordobango harrobiko proiektua hor dagoela Nafarroako Gobernuo baimenarekin eta eskaera edozein momentuan sar dezaketela. Hau ikusirik, ulergaitza da oso zergatik ez den bi harrobien kontsulta batera egin nahi gaiarekin behin behingoz amaitzeko. Bi kontsulta eginez herriko enfrontamendu giroa bikoizteko beharrik ba al dago? Dena den, bi harrobiekin argudio berdinak daude bai alde eta bai kontra egoteko, beraz, ez dut ikusten baterere logikoa eztabaida bi aldir errepikatzea. Ez ahaztu herri kontsultaren aldeko 1.100 sinadura horiei erantzun praktikoa emateko garaia badela lotsarengatik bakarrik bada ere.

NAN. 29.148.942



OHARRA:

Eritzi ezbedinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta ENAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa**k bere esku izanen du horretarako eskubidea.



LESKA

PIKABEA
pinturak
Molinero drogerian galdetu

Etxe barneko hezetasun eta kondentsazio arazoak moldatuko dizkizugu

- Fatxadak
- Barne dekorazioa
- Pintura orokorrean

Izpoz 8 • ☎ 630240 - 631495 • **BERA**



© 948-451771



Egunkaria 96-VII-4

«Bakarrik jotzea zaila egiten zait. Taldeari gustua hartu diot, eta latosoia egiten zait gitarra hartzea. Kantuan aritzea errazagoa da.».

POTTOKA

'Otsondo 602'ko taldekidea
Egunkaria 96-VII-4

Jazz Band izenarekin beste talde bat badela eta izena aldatu beharko genuela erran ziguten. Noski!, hori ez zen guretzat arazoa izan. Guretzat ohorea da Donostian egon ahal izatea».

16 JAZZ-EROAK

Bera-Lesakako Jazz taldea
Egunkaria 96-VI-27

«Donostiako Jazzaldian jotzeko eskatu ziguten, baima EEBBtan Free Spirit

◆ **Gaztetako bestak edo oraingoak?**

❖ Orduko musika izugarri estimatzen genuen.

◆ **Onddo beltza edo onddo zuria?**

❖ Biek onak dira baina nahiago beltza.

◆ **Sunbilla edo Elgorriaga?**

❖ Sunbilla oso maite izan dut baina orain maiteago Elgorriaga.

◆ **Bestetako programan zer duzu gustukoan?**

❖ Zikiro jatea maiteena.

◆ **Aukeran irratia edo telebista?**

❖ Enteratzeko irratia, ikusteko bertzea.

◆ **Pilota partiduetan edo aizkora apostuak?**

❖ Biek nahi, bat aukeratzekotan pilota nahiago.

◆ **Herriko etxeko lanak edo Arkupeak elkarteko lanetan?**

❖ Baldin bada zerbait jornalik gabekoa seguru neretako izanen dela. Ez nago lanik gabe behinpin.

◆ **Musean aritu edo ihizean ibili?**

❖ Musean noiznahi eta ihizean hilabete bat.

◆ **Mendiko lana edo fabrikari nahiago?**

❖ Fabrikako lana diferentzi haundiekien.

◆ **Denbora libre zertan?**

❖ Txintxonon, musean eta arrazteluak egiten.

◆ **Lehengor neskak edo oraingoak?**

❖ Lehengoak politik ziren baina orain konfiantza gehiago dago neska-mutilen artean.

◆ **Desio bat?**

❖ Ongi bizi naiz eta hogei urte gehiago bizitzea.



Tiburzio MARTIARENA
Elgorriagako kontzejala

MASAIA eta BIZKORTZE ARIKETAK

Txomin Irazoki (fisioterapeuta)

✂ **MASAIA:**

- Minerako eta zirkulaziorako
- Zerbikal edo garondokoa eta lunbarrak
- Hanka eta besoetan

✂ **BIZKORTZE ARIKETAK:**

- Trafiko eta lan istripuak
- Kirol lesioak
- Belaun eta kaderako protesiak

Tel. 631391 - 908.576388
Eztegara 20, behea • **BERA**

Dia % **Autozerbitzua**
deskontua

KONPARATU ETA IKUSI EZ DAGO MERKEAGORIK

Prezio baliogarririk 1996ko Uztailaren 10etik 29ra

 <p>55.- Kiloa 110 Pntan</p>	 <p>158.- Kiloa 585 Pntan</p>	 <p>86.- Kiloa 110 Pntan</p>
 <p>38.- Kiloa 271 Pntan</p>	 <p>119.- Kiloa 110 Pntan</p>	 <p>41.- Kiloa 124 Pntan</p>

Eztegara, 6 • ☎ 63 14 03 • **BERA**

Bera

'16 ero' Jazz taldeak Donostiako jazzaldian joko du

Uztailaren 24an izanen da hori, Alderdi Eder parkean eta arratseko bederatzietan

KRISTINA BOAN

Errege egunean es-treinatu ziren Jazz tal-de bezala ordurarte Zizkuitz eta Izar txar-gatan jotzen zuten musikari hauek. Eta hasiera batean *Free Spirit Jazz Band* beza-la ezagutzen baziren ere, gerora *16 ero* ize-na hartu zuten.

Bitarte honetan, he-men inguruan ibili di-ra jotzen eta oraingo-an Donostian ari-tzekoak dira jazzero ospetsuenei bidea ire-kitzen. Inglaterrako *Easy Band* taldearekin Jazz Band Ball-ean ari-tuko dira, elkarrekin kantuak txandatu-z.

Donostiako *Lau Behi* taldearekin, eus-kal ordezkari bakarrak izanen dira aurtengo Jazzaldian. Gure Txo-koako Iñaki Ganuzak bilatu die bertan ari-tzeko aukera. 'Dixie' estiloko musika egiten dute eta *Louis Amstrongen* hainbat pieza bertsionatuko dituzte



Hauetatik 9 lesakarrak dira eta bertze zazpiak, beratarrak

Arg.: Jon ABRIL

euren errepertorioa osatzeko. Momentuz, 15 pieza inguru prest dituzte «*Kalitatea eduki badugu, bainan Donostian jotzea bertze kontu bat da, kalitate haundia behar da eta 5 emanaldi baino ez ditugu eskeini*» diote.

Dena den, ez da hi-labete hontako kont-zertu bakarra izanen. Igandean, uztailak 21, Hondarribian joko du-te ilunabar aldera.



Urrezko Ezteiak ospatu berri dituzte Jesusa Sanzberro Elizalde eta Jose Errandonea Irazokik euren familiaren konpainian. Zorionak.

ttipi-flash

♦ Futbito

Peñen arteko futbi-to txapelketa uztai-laren 12an hasi da. Zazpi taldek eman zute izena eta esko-letako frontoian ari-tuko dira iluntzeko 8etan.

♦ Baztandarren Biltzarra

Gure Txokoako dantzariak *Iñude-ak eta artzaiak* dantzatzera joanen dira uztailaren 21-ean. Joan nahi duenak, uztailaren 19an frontoian izanen den entsa-iora agertu behar-ko du arratseko 8etan.

BOTXO
ostatua

Tfnoa: 63 00 52
Zalain Auzoa, BERA

GANIX
Tailerrak

IBILGAILUEN MEKANIKA
ETA ELEKTRIZITATEA
FIAT Zerbitzua

Iturlandeta 9 • © 630669 • BERA

SAROBE

okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

E D A R I A K



MANUEL TABERNA S.L.

Bidasoa K / 82 - 31780 BERA (Nafarroa)
Tel.- Fax: 948. 63 10 27

Lesaka

SAN FERMIN 96

Aurtengo bestak irudietan

ttipi-flash

◆ **Eskolamendi eta Katatzepgi**

inguruetako lurren kontaminazioa kontrolatu eta aztertze-ko 7,3 milioi pezeta-ko lanak onartu ditu Nafarroako Gobernuak. Dirutza Sailak 2,4 milioi aurtengastatuko dira eta 4,8 milioi datorren urtean.



◆ **Suteen prebentziorako sistemak**

Lesaka-Sunbillan hobetzeko ia 50 milioiko gastua onartu du Nafarroako Gobernuak. Dirutza horretatik, 10 milioi aurtengo aurrekontuan sartuko dira eta gainerakoa datorren urtean.



◆ **Tantirumairu**

dantza taldea Europako dantza jaialdian parte hartuko du asteburu honetan, Frantziako Gennetines hirian.



Zaila da sei eguneko besta —ofizialki larunbatean hasi baziren ere, ortziralean ere giro ederra izan zen— lau argazkitan biltzea. Herriko Etxeak antolatutako besta ofizialekin batera, txoznen gunean ere izan zen zer aditu eta zer ikusi, nahiz eta eguraldiak ez duen sobera lagundu. Argazkiak: Karmela



EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko oreakirik hoberena

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria, 67 - ☎ 637264



IRU BIDE
ERRETXEGIA

Tfnoa: 637127
LESAKA

XATURETKEA



Tfnoa: 63 70 27 LESAKA

KOXXILA OSTATUA



Zarandia, 4 - LESAKA



INAXIO JANARIDENDA

lgandetan 9etatik 13etara irekia
ASTERO eskeintza bereziak

Plaza Zaharra, Tfnoa: 637059 - LESAKA


Etzalar

Autoak gero eta traba haundiago bihurtzen ari dira

Aparkatzeko leku eskasiak eta gidarien lasakeriak badu zerikusia

PELLO APEZETXEA

Karrika eta plaza bazterrak gero eta traba batuago daude. Plaza inguruan gurutzatzeko aukerarik ez da izaten aunitzetan, eta goitirantz jo behar denean, Jauregieta aldera, kontuz ibili beharra dago, ikusi ere ez baita egiten norbait goitik heldu bada. Zenbaitetan nork bere etxean sartu-ateratzeko oztopokak dituela eta, badira etxe parean autoa uztea debekatzeko seinalea paratu nahi eta Udalbatzari baimena eskatu diotenak. Honek, berriaz, baimena emanez gero ezin duela errespetarazi erantzun du. Momentuz, autoa uzterakoan ahalik eta ongi- en uzteko eskatu die herritarrei, traba gutien



egiten duen tokietan. Dena den, aparkaleku gehiagoren beharra gero eta nabarmenagoa izanagatik, herritarrok autoa behar den tokian uzten ikasi beharra nabarmenagoa da.

Igerilekuetarako giro kaskarra

Uda hasierako eguraldiak ez du bustitzera gonbidatu. Igerilekuetan isiltasuna izan da nagusi lehen bi asteetan. Denboraldi osorako txartelak ere ez dira iaz hainbat saldu. TTIPI-TTAPA hau etxeratze orduko aldatu dira, behar bada, gauzak,

edo eta aldatuko ahal dira agian.

Igeriketa ikastaroa

Hala ere, ikastaroa gauzatzen ari da joan den astetik hasita. Eguzki gehiegi ez izanagatik, urak ez dira hotzak izaten orain. Haur gehienak probaxten ari dira igeritan ikasteko aukera horretaz. Gauza aski ona, bertzalde, bai soinketa edo gimnasiarako, bai laguntza bezala zenbait arriskutarako.

Dirulaguntza Altxatari

Altxata Elkarteari 200.000 pezetako dirulaguntza ematea erabaki du Udalbatzak 1996. urteko gastuetarako.

Duela urte batzuk maiz ikusten zena, ia dena etxen egiten zenean



ROMANO dekorazioak

PINTURA ETA PAPERIZATZE LAN GUZTIAK EGITEN DITUGU

- ☛ Zolak jartzen ditugu:
 - Kortxoak
 - Moksetak
 - Parketa
 - Sintasola
- ☛ Gure kolokazio tailerra daukagu
- ☛ Komertzioen errotulazioa

Aurrekontuak konpromezurik gabe

Legia 1 • Tel. 631137-630941 • **BERA**



Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

Deñe

LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA



HERRIKO OSTATUA
Jatetxea

☎ 635290
ETXALAR

Proba ezazu gure ostruka plater exotikoa

Igantzi

75 milioiko lanak egin gogo ditu udalak hurrengo hiru urteetan

Begoña Martinez dugu mediku berria uztailetik

OSKAR TXOPERENA

Hurrengo hiru urteetan obra handi xamarretan sartzeko asmoa du Udalak. Diru kopuru inportanteena base-rietako bideak moldatzeko aurrikusi dute zi-pegotziek, 43'5 milioi pezeta hain zuzen. Eskola-zar moldatzeko ere egin du eskaera 18 milioiko aurrekontua-ekin. Azkenik, apar-kaleku bat egitea (10'5 milioi) eta herriko argi-sarea zabaltzea (2'5 milioi) daude zerren-dan. Jakina, obra hauek guziak egiten lagun-tzeko onartu egin behar izaten ditu Nafarroako Gobernuak, eta lehenagotik dakigu-nez, ez da gauza erra-za izaten. Halere, hor daude datuak.



1.700.000 pezetako dirulaguntza hartuko du udalak Nafarroako Gobernutik Eskola-zarreko teilatua moldatzeko. Lanak 5.600.000 pezetako aurrekontua du eta %30a etorriko da Iruñetik. Badu udalak, bertzalde, etxe osoa moldatzeko gogoia. Hori dela eta, 18 milioiko aurrekontu-arekin Hirurteko Plangintzan sartzea eskatu dio Nafarroako Gobernuari, bertze zenbait lanen artean

Oskar TXOPERENA

Mediku berria

Begoña Martinez Iruñearra bada ere, Leitzatik heldu da. Azken urteotan gurekin egon den Aurora Garcések lanpostu berria du Iruñean eta joan egin

da. Ongi etorria mediku berriari eta esker-rak joan denari.

Urrezko Ezteiak

Joan den hilabete-ko kontuak dira baina inoiz ez da berandu berri onak emateko. Arkupeak Urrezko Ezteiak bete dituztenei egin-dako omenaldian Igan-tziko bi bikote genitu-en: Agustin Antxordo-ki eta Dolores Retegi alde batetik eta Bau-tista Telletxea eta Car-men Altzuri bertzetik.

Eskola

Eskola txukuntze-ko lanak (pintura, gar-bitasuna,...) auzolane-an egingen dira hurren-go egunetan. Bandoan paratuko dira, baina zerbait egiteko gogoia duenak Guraso Elkar-tekoengana jo dezala.



Irungo errepeidea - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

- | | |
|---------------|------------|
| Antzinaldeak | Tximiniak |
| Angeluak | Érlaizak |
| Orma antzinak | Moldurak |
| Leihoak | Zokaloak |
| Ateak | Hilarriak |
| Arkuak | Matrazkiak |
| Pilareak | |

'Abujardadoa' Mozioa
Zuhar antzekoa Tzapetina

ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK



ZALAIN
JATETXEA

EGUNEKO MENUA ETA KARTA

Zalain Auzoa

© 63 11 06

BERA

Boda eta banketeak ematen dira



J. RAMOS

Zolak akutxilatatu eta barnizatzen dittut

© 631342 BERA • © 637172 LESAKA



Altzate, 19 • 630786 • BERA



Albistur, 39-K • ☎ 627542 • LESAKA

bitxikeriak • opariak • enmarkazioak

BEREAU

jatetxea • Hotela

Lesakako Bidegurutzean
Tfnoa: 63 73 82 - LESAKA



© 631076 • BERA

Arantza

Asteburuan jokatu da Ekaitza elkartearen pilota txapelketa

Karriketako obrak, bertzalde, amabirjinetarako akautuak egotea espero dute Herriko Etxekoek

GARBIÑE ETA ELIXABET

Kronika lehenagotik idatzia denez, ez ditugu emaitzak ematen ahal. Halere, jokatzeko ziren bikote guzieren berri emanen dizuegu.

Horrela bada, laruntatean arratsaldeko 7etatik aitzinera 4 partidu zeuden: benjaminetan, Imanol eta Patxi Lujanbio, Unai Ordoki eta Joseba Bergararen aurka. Alebinetan Xabi Larretxea eta Jagoba Yubero, Joseba Pika-bea eta Dani Iparagirren kontra. Jubenetan Raul Iparagirre eta Iker Eguzkiagirre, Gaizka Almandoz eta Jabi Iparagirren kontra. Afizionatutan Tomas Telletxea eta Patxi Ordoki, Joxemi eta Oskar De Ruedaren



aurka.

Igandeari dagokionez, eta goizeko 11etan hasita, hiru partidu jokatu ziren: benjaminetan Xabi Gamón eta Iñigo Apezetxea, Beñat Mitxelena eta Eneko Ordokiren kontra. Jubenetan Jose Agustin eta Antonio Goñi, Jabi Mitxelena eta Igor Oskozen aurka. Akautzeko, afizionatu mailan Agustin Etxebeste eta Julian Larretxea, Jon eta Aitor Agestaren kontra aritzekoak ziren. Hurrengo alean emanen dugu emaitzen berri.

Osiña auzoan egiten ari diren lanak bestetarako akautuak egotea espero da.

Artxiboa

Karrikak bestetako akautuak

Oraindik dexente falta bada ere, bestetako dena akaututa egonen dela erran digute. Goiko karrikatik Aterpe ondoraino breaztatua dago eta orain Osiña auzoan ari dira.

Aterpeko Barnetegia

Euskara ikastera etorriak, 28-30 lagun daude. Egonaldiari hasiera eman eta herriko jendea ezagutzeko, afaria egin zuten Aterpen. Geroztik, badirudi aunitz ikasten ari direla ez baitira kanpogan sobera ikusi. Erran digutenez, Arantza zoragarria iduritu zaie eta gure artean gustora omen daude.



ALBERGEA JATETXEA
 © 634179
ARANTZA

Elizatzte
ERLOJUTEGI BITXITEGIA
Nafarrentzat prezio bereziak
 Landetxe Enparantza © 943.492698 **OIARTZUN**

F. MARITORENA
Mendi eta lorategi garbiketak
 Tfnoa.: (948) 63 11 99 - **BERA**



AMEZTIA
Jatetxea - Hostala
 Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan
 Tfnoa: 450028 • **DONEZTEBE**

OKANE
HARATEGIA • URDAITEGIA
 Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 • **BERA**



BELARRA
OSTATUA - JATETXEA
 Ameztia karrika • **DONEZTEBE**
 Tfnoa: 45 03 06

Malerreka

Josetxo Ezkurraren omenaldiko aurtengo edizioa akitu da

Uztailaren 6an jokatu ziren zazpi mailetakoko finalak Doneztebeko frontoian

TXEMA ALDABE

Uztailaren 6an jokatu ziren finalak Doneztebeko frontoian. Goizez hiru partiduko jokatu zituzten eta arratsaldean lau. Jende franko hurbildu zen partiduak ikustera eta sari banaketan Koteto Ezkurra (Josetxo zenaren semea), Mikel Goñi pilotaria eta Iñaki Lizaso erremontelaria izan ziren.

Emaitzak

Ttikietan

Patxi Barberena (Irurita)-Igor Arregi (Donamaria), 18
N. Mindegia (Donezt.)-G. Otxandorena (Almandotz), 4

Umeetan

Karlos Goikoetxea (Irurita)-Gorka Urtasun (Irurita), 18
Alain Ezkurra-Oskar Urrutia (Saldias), 9

Haurretan

Asier Atxa -Xabier Altzugarai (Almandotz), 18
Xabier Irigoien (Elizondo)-Patxi Zebriain (Amairu), 13

Gaztetxoetan

Melo Berro (Oronoz)-Iosu Baleztena (Erratzu), 18
Iñigo Mangado (Doneztebe)-Patxi Jaurena (Urdazubi), 10

Kadeteetan

Mikel Argarate (Lekaroz)-Joseba Berro (Oronoz), 18
Juanjo Irigoien-Noel Eiheragarai (Urdazubi), 10

Gazteetan

Joseba Andiarena (Doneztebe)-Iñigo Huarte (Elizondo), 22
Raul Saldias (Ituren)-Igor Babaze (Zubieta), 16

Beteranoetan

Diaz de Ultzurrun-Urdaniz (Ultzama), 22
Patxi Ordoki-Luis Martin (Doneztebe), 13



TELLETXEA MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu.
- Haritz, gereziando, gartzainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak, ate korredera edo normalakin

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE

Liburuzain lanpostua ez da finkoa izanen

Doneztebeko Udalak gizarte laguntza modukoa izatea nahiago du

TXEMA ALDABE

Liburutegia ideki zela abudo hiru urte eginen dituela eta, Doneztebeko udalak urte honetako hilbeltzan egindako plenoan liburuzain lanpostua fijo ateratzea onartu zuen. Gisa horretan atera zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean ere, Doneztebeko plantillari dagokionez. Baina gero, ekainaren 4an egindako bilkuran, gizarte laguntza edo 'co-laboración social' delakoa

egiteko aukera eman zioten, lanpostu hau "ziurra ez dela eta herriaren interesagatik" dela adieraziz.

Aldaketa honek interes ekonomikoa duela argi dago eta egoera hau Malerrekan zenbait administrazioetan ematen da, langileen eskubideak zapalduz. Gizarte laguntza kontratu modu honetan langabetuak lenean segitzen du, baina bere soldata norberaren langabezi sariaz baliatuz ordaintzen zaio.

Gizarte laguntza moduan hiru langile hartu ditu Doneztebeko udalak

T.A.

Dirulaguntza lortzeko INEMekin adostasun batera iritsi ez delako oraingoz, Doneztebeko Udalak INEMera jo du hiru langile hartzerako orduan. Langile hauek bete beharreko baldintza paroa kobratzen egotea zen, gizarte laguntza kontratu baten bitartez aritu ahal

izateko. INEMetik igorritako zerrenda ikusi ondoren, udalak ahobatez Luis Zunzarren, Oscar Elorza eta Jose Mari Olazar hartu ditu herriaren zenbait lan egiteko. Udalak langile bakoitzagatik 2.000 pezeta ordainduko du egunero, gainerakoa norberaren langabezia saririk ordainduko zaielarik.

Donamariako bide zaharra libratzeko zenbait akordio hartu dira guardiazibilekin

T.A.

Donamariako bide zaharra dela eta Doneztebeko alkateak guardia zibileko kapitain eta tenientearekin egon ondoren, zenbait erabaki hartu zituzten.

Honela, zaborontzietara zaborra eta zakarra botatzeko jendeari toki aski uzteko konpromezua hartu zuen guardiazibilak. Bertzalde, hiru edo lau Land Rover ba-

terian aparkatuak uzteko toki egokitzea eta bertze hiruzpalau Donamariako bidean uztea, baina autoak pasatzeko lekua utziz erabaki zen. Etorkizunera begira, epe laburrera aparkatzeko bertze toki bat bilatzea eta epe ertainera kuartela dagoen lekutik kentzea, egoitza hau ez delakoz egokia eta baldintzak betetzen ez dituelakoz, adostu zen.



ADOS

INMOBILIARIA AGENTZIA

Julian Izura Nuin

BERA.

- 110 m²ko kanpoaldeko pisu zoragarri bat salgai: 3 logela, egongela, sukalde mobleztatua, bainua, despentsa, 14 m²ko terraza, ganbara; garajearekin edo garajerik gabe.

ELIZONDO.

- Pisu haundi bat salgai.
- Bajera bat salgai.
- Etxe bat salgai.

LESAKA.

- Bajera bat salgai.

ELGORRIAGA.

- Pisu bat salgai.
- Etxe polit bat salgai: Bi solairu, ganbara, sotoa eta bi terraza zabal.
- 3.000 m²ko lur eremua salgai.

OITZ.

- Txalet bat salgai: bi solairu, ganbara, garajea eta 2.600 m²ko lur eremua.

Baztan, Bortziriak eta Malerrekan lur eremu, borda eta baserriak erosiko dira

Telefonoak: 451841 / 908.778653
Parrokia 5, 2. ezk. • DONEZTEBE

EGITARAUA

Uztailak 19, ortzirala
Arratseko 9etan txupinazoa. Gero trikitilari eta txistulariak. Dantzaldia GAUBELA.

Uztailak 20, larunbata
10etan trikitilari eta txistulariak. **11etan** Plater Tiraketa txapelketa herrikoentzat. **12etan** pilota partiduak: Otxoteko-Almandoz, Leiza-Otxandorena. **6etan** futbito partdua. Dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Uztailak 21, igandea
10etan trikitilari eta txistularik. **12etan** Meza. **6etan** pilota partdua: Saldias-Apeztegia II, Andiarena-Babaze. Dantzaldia GAUBELA.

Uztailak 22, astelehena
Haurraren Eguna
10etan kalejira. **11etan** mus txapelketa. **5etan** haur jostetak. Ondotik txokolate jatea herriko plazan. Dantzaldia GAUBELA taldearekin.

Uztailak 23, asteartea
10etan kalejira. **2.30etan** herri bazkaria, giroa eta umorea trikitilariak alaituz. Gero kalejira. Dantzaldia, 'Pobre de



1960-63ko kintoak. Argazkia mutikoen eskolan ateria da Javier Juankorena maisuarekin batera. Juan Angel, Pedro Joakin, Karmelo, Antonio, Jesus, Juanjo, Patxiku, Xabino, Pedrito, Xeberi, Josefa, Ana Pilar, Mari Karmen, Maribel, Inmaculada, Sagrario, Virginia, Mariasun, Mari Juani, Maximo, Martintxo, Joxemari, Juan Antonio, Ixabel, Tere, Belen, Amaia, Mari Karmen, Maite, Txaro, Mari Tere, Mikeli, Jose Luis, Fernando, Jose Inazio eta ezagutu ez dugun bakarren bat gehiago.

Arbolaren Besta.
 Duela 60 urte edo, besta honetan aldatu zituzten herri sarrerako, Plazako eta mutikoen eskola inguruko platanoak. Argazkia Herriko Etxearen aitzinaldean ateria da, eta orduan, Herriko Ostaturia lehenbiziko solairuan zegoen, jendea ageri den leihoetan.

Mi' eta festen bukaera ETZAKIT taldearekin.



FIESTAS DE 1968

Garai batean, Ituren eta Aurtiz auzoko bestak batera egiten ziren San Martinetan, azaro hasieran.

ARGAZKIAK: ALBINEA

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

TABERNA ETXEA

Besta zoriontsuak opa dizkie Iturendarrei

Merkatarien karrika 12, ☎ 450007 - DONEZTEBE

MENDAUR OSTATUA

Besta ederrak pasa!

☎ 45 05 73 ITUREN

ITYRENGO ZYRGINDEGIA

Besta onak pasa!

☎ 450327 • ITUREN



Besta zoriontsuak opa dizkizue Iturendar eta bisitari guztioi

ETXANDI TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN
 Tfnoa: 45 04 91

EGITARUA

Uztailak 24, asteazkena
Arratseko 8etan txupinazoa. Gero ezkil jotzea eta trikiritxak. Herriko ostatu-jatetxeetan Pazin-zopak. Dantzaldia AMALUREkin.

Uztailak 25, ortzeguna
Santiago eguna

9etan karrikapasa trikitilariekin. 11etan Meza kantatua. 12etan 'Raices Norteñas' en emanaldia. Ondotik aperitibo. 6etan Pilota partiduak. Dantzaldia AMALUR taldearekin.

Uztailak 26, ortzirala

9etan karrikapasa trikitilariekin. 11etan Futbol partidua. 5etan Plater Tiraketa herrikoentzat eta 6etatik goiti Jostetak haurrentzat. Dantzaldia BASAJAUN.

Uztailak 27, larunbata

9etan karrikapasa. 12etan Toka Txapelketa. Ondotik Azpillaga eta Agirre bertsolariak. 2etan Zikiro Jatea bertsolarietan. Dantzaldia BASAJAUNekin.

Uztailak 28, igandea

11,30etan Mus Txapelketa. 5etan finala eta akitzeko berendua.

Aurtengo bestetan ere, jende arteko otorduak noiznahi izanen dira.

Bezperako pazin-zopak, larunbateko zikiro-jatea edo bestak akitzeko eginen den berendua horren erakusgarri. Ez da aunitz sobratuko!



'Zubietako' euskaldunberriak ETBn

Udari eguraldi ezin hobegorekin eman diogu hasira bainn ia eguzkitan egoteko modurik ere ez dago, zeru ilunari euri tarte ederak biltzen baitzaizkio. Beharrik, bai, euskaldun berriak Zubietara etorriak, beti bezala, herria pixka bat animatzeko. Lastima, beste urteetan baino gutxiago etorri diren, 9 hain zuzen; halerehemen dagoen hutsu-

nea aisa betetzen dute eta. Gero zer eginen euskaldun berri hauek eta ETBn agertu ziren. Egia da ez zirela denbora luzez azaldu, baina aipatu bederen egin zituzten, haien aurpegiak erakusten zituzten bitartean. Non eta hemen pasatu behar hau ere. Gu harro sentitzeko modukoa ote da montaje hau Txarreako, behinik behin, ez da izanen.

Pelikula emanaldiak hamar herritan Langarraren eskutik

Langarra euskara taldeak udako zine emanaldiak antolatu ditu uztaileko bigarren hamabostaldirako, Nafarroako Gobernuaren babesarekin.

Uztailaren 19an, Saldiasen, 'Akelarre' filmea izanen da ikusgai, uztailearen 20an, Oitzen, 'Sorginen mardarikazioa', 22an Donezteben 'Zinema Paradiso', 23an Narbar-

ten 'Asterix eta Kleopatira', 24an Sunbillan, 'Kokodrilu Dundee', 25ean Iturenen 'Balén bidean', 26an Ezkurran 'Kosk egin balari', 29an Legasan 'Ametsak amets', 30ean Zubietan 'Zinema Paradiso' eta 31n Urrozen 'Gaubat operan'.

Emanaldi guziak gaueko 10,30etan izanen dira.

ONGI PASATU HERRIKO BESTAK

Hilarion Jatetxea

Arrain, marisko eta bertako produktueta espezializatuak

☎ 45 00 03 • ELGORRIAGA

TABERNA ETXEA

Besta zoriontsuak opa dizkie
Elgorriaga eta Aranoarrei

Merkatarien karrika 12, ☎ 450007 - DONEZTEBE



ETXEBERRIA ZURGINDEGIA

Klase guztietako lanak egiten ditugu

☎ 45 03 10 • ELGORRIAGA



UDA HONETAKO EZKONTZETAKO
KANPAINA BERRIA HASIA DAGO

KALE NAGUSIA 4 - TEL. ETA FAX: 45 08 25 DONEZTEBE
SANTIAGO KALEA 40 - TEL: 58 01 55 ELIZONDO

Goizueta

Goizueta-Hernani arteko autobus zerbitzuan aldaketa probisionalak

Bestalde, Udal Musika Eskolan izena emateko epea ideki da

ESTEBAN AROZENA

Goizueta eta Hernani lotzen dituen autobus zerbitzua C. Albak garagarriaren 30ean uzten zuela aspalditik jakina baldin bazen ere, Nafarroako Gobernuak ez ditu burutu beharreko gestioak garaiz egin, eta horren ondorioz, uztailaren lehenengo astean zerbitzurik gabe egon gara. Hala ere, arazoari atetabide bat bilatu zaio-la dirudi, hil honen 8az geroztik Ceferino Apeztearen autobusak betetzen baitu hainbeste urtez Albaren esku egon den lan hori.

Arazoa konpondua egon litekeela aipatu badugu ere, Diputazioaren erabaki hau orain-



Eskolako patioan ateritako argazkia, haurrak lasterka, publikatu zen.

dik behin behinekoa dela esan behar da. Jakin dugunez, C. Apezteaz gain, beste bi aspirante badaude linea hau hartu nahi dutenen zerrendan, bat goizuetarra eta bestea eratsundarra. Horrela,

legeak agintzen duen adjudikazio prozesua martxan jartzera behartuak aurkitu dira Iruñean, bien bitartean, esan bezala, Apeztearen ardurapean gelditzen da linea.

Probisionaltasun

hau indarrean dagoen bitartean, honako ordutegia izanen du autobusak: Goizuetatik goizeko 7,30etan eta arratsaldeko 3etan; Hernanitik, berriz, eguerdiko 12,15etan eta arratsaldeko 7etan.

Musika Eskola

Uztaila osoan zabalik dago Udal Musika Eskolan izena emateko epea. Zazpi urtetik gorako edozein herri-tarrak ikas lezake bertan.

Neska mutikoak igerika ikasten

Herriko neska-mutikoak ez daude alperkerian erortzeko asmotan uda izan arren. Hogeita hamar baino gehiago dira igeriketa ikastaroan parte hartzen ari direnak, eta 11 hil honen 25etik 28ra Beintza-Labaiengo aterpetxera joanen direnak Udal Euskara Zerbitzuak antolatuta-gon egonaldian.

Areso

Ustegabean, festetako sasoian sartuak gabilta

Herriko Eliza, halere, negurako prestatzen ari dira

JUANA M^o SAIZAR

Dagoeneko ikasturtea bukatua dugu, Sanjoan sua itzalia, San Pedro jaia ospatua, eta nolabait, udako atsedendian sartuta gaude. Beraz, festa garaia ailegatu zaigu eta gure gazte eta umeak hor dabilta exhibizioa batzuk egiten; Proba Konbinatuak Sanferminetak eta pelotariak, txapelketa batean Erren-

teri-Oreteran. Igeri ikastaroak ere martxan dauden eta eskolako lehen eta bigarren mailakoak, Guraso Elkarteak antolatuta, Tolosara joaten dira. Bestalde, herriko Eliza prestatzen ari dira negurako eta bigarren eskuko berogailua oparitu digutenez, obrak hasiak dira dagoeneko. Lanerako orduan, oso erantzun ona ari da ematen jendea.



San Pedro egunean egin zuten Sendotza, Fernando Sebastian apezpikoarekin.

M^o Carmen Garmendia

Leitza

Asketa abesbatzak egin du bere kasketa

Abuztuaren 25, 26 eta 27rako, kantuzaletasuna kanporatu eta ospatzeko, musika eta kantuari lekua eskeintzea erabaki du

JOSEBA AZPIROZ


Datorren asteko 25, 26 eta 27an, Leitzako Asketa Abesbatzak, herrian betidanik izandako kantuzaletasuna kanporatu eta ospatzeko asmoz musika eta hantuari bere lekua eskeintzea erabaki du.

Horretarako, segidan aipatzen diren ekitaldietarako konbitea luzatu dute:

Uztailak 25. Arratsaldeko 8,30etan, Tolosako *Hodeiertz Abesbatza* arituko da herriko zine aretoan. Abesbatz gaztea izan arren, polifonia eta kantu koraleko lehiaketa ugaritan lehen saria eskuratu du.

Uztailak 26. Gauko 10etan, *Easoko Ederrak*, musika-komedia taldea arituko da, hau ere Zinean.

Uztailak 25. Arratsaldeko 8etan meza kantatua *Asketa* eta *Jeiki* abesbatzekin. Ondotik kontzertua izanen da Leitzako abeslari guztiek eskeintzen, zahar eta gazteek. Gauko 10etan, herriar guztiei irekia den afaria egingen da Herriko Plazan. Eta afalostean, *Etzakit* taldearekin erronomia.



Aritz mendiko Haize Parkearen lehen fasea ia bukatua dago

EHN enpresa Aritz mendian egiten ari den Haize Parkearen lehenbiziko faseko 16 haize errotetatik 15 jarriak dituzte dagoeneko. Apirilean hasi ziren obrak eta irailan bukatzea espero dute. Abuztuaren erdi aldera edo, argindarra egiten hasteko asmoa dute eta irailan, obra guzia bukatuko litzateke, belarra erein, epuruak aldatu, ... eta dena, zegoen bezala uzten saiatuko baitira.

Bigarren fasea egingen den edo ez, ez dute argitu oraindik. Haizearen indarra berriz neurtu eta hartuko dute erabakia. Oraingoz Berrieteko Haize Parkearekin segituko dutela segurua da.



ttipi-flash

♦ Pilota

Hilaren 6an jokatu zen Plazako Pilota Txapelketaren finala. Aurrerak 4. urtez antolatu duen txapelketa honetan 20 bikotek hartu dute parte eta finalera Juan Luis Aranburu-Patxi Olaetxea eta Iñaki Mariezkurrena-Jose Antonio Olaetxea (15-22) ailegatu ziren. 48 partidu jokatu dira 8 asteburutan eta ikusleen kopurua, ohikoa.

♦ Okile

Ezinduen Tailerreko oposizio-lehiaketa Pablo Feo, 27 urteko bilbotarrak atera du puntuaziorik altuena.

♦ 3.092 leitzar

Egin berria den udal erroldaren arabera 3.092 bizilagun gara Leitza (1995eko hiltzetaren lein baino 57 gutxiago) eta horietatik 422 baserrietan bizi dira. 40 baserri eta 228 pisu daude hutsik, edo hoietan bederen, ez dago inor erroldaturik.

- Istripu Aseguruak
- Gaixotasun edo istripuetan
- kobratu ahal izateko

Huarte Gotzai 8, beheak • 31880 LEITZA
Tel. (948) 61 09 19
M^a Jesus BARAIBAR



ttipi-ttapa
Gida Komertziala 96

Ez galdu sekulan begi bistatik.
Den-dena eskeintzen dizu!



Baztan

Baztandarren Biltzarra aste ondar honetan ospatuko da

Aurtengoak XXXIII. edizioa egingen du eta egitaraua azken urteotakoaren antzekoa izanen da

TTIPI-TTAPA

Larunbatean hasiko da animazioa. Arratsaldeko 8etatik aitzinera gaiteroak eta fanfarreak ibiliko dira Elizondoko karriketan, eta 9etan, bailableak izanen dira Ziga margolariaren Plazan, larraindantza, muxikoak eta gisa horretako dantzekin. Gauerditik aitzin gaupasa izanen da Trikimailu taldeak alaiturik.

Igandeko ekitaldiei dagokionez, goizeko 10etan izanen diren Laxoa partiduekin emanen zaie hasiera, eta beti bezala, 12etan orga apainduen ibilaldia hasiko da. Orga bat eta bertzearen artean Euskal Herriko inñauteak dantzatuko dituzte handik eta hemendik etorriko diren 8-10 dantza taldek. Hoiekin batera, 3-4 txaranga eta gaitero taldeak ere ibiliko dira. Desfilea akitu ondotik, urtero bezala mutildantzak izanen dira Elizondoko Plazan. Antolatze lanetan dabilen Jexux Bailonek erran digunez, «aurten ere kanpaina egiten ari gara herriz herri jendea animatzeko karrozak egitera. Orain ikusi egin behar azkenean zenbat ateratzen diren, beti azken momenturako uzten baita».

BAZKARIA 1.600 LAGUNENDAKO

Urtero bezala, 2,30etan



Antolatzaileek dei berezia egin dute antolakuntza lanetan parte hartzeko, orgak egiteko eta egun horretan arropa tipikoak jatzeko. MENA

hasiko da herri bazkaria Merkatu zelaian. Aurten ere 1.600 bazkari inguru saltzea espero dute eta aparte, bertze 500 gehiago gorde dituzte gonbidatu eta langileentzat. Txartelak aste osoan eta igande berean ere Baztandarren Biltzarra elkarteko egoitzan daude salgai 2.200 ptatan. bakoitza. Euria egiten badu, Elizondoko pilotaleku estalian izanen da.

BAZKALONDOAN KANTARI ETA SOINULARIAK

Bazkalondoko animatzeko, Bittor Elizagoien eta Manolo Arozena bertsolariak, Erramun Martikorena, Aire ahizpak, Niko Etxart eta Anje Duhalde kantariak, Otsondo 602 musika taldea eta Lesakako trikitixa talde bat ere izanen dira.

Arratsaldeko 6etan, bertzalde, kirolari ere tartea eskainiko zaio eta *Zesta punta* partidua izanen da frontoian. Eta prestatu duten egitarauari akabera emateko, ilunabarrean dantzaldia eta 'orga-zama' ren zozketa izanen dira.

5 MILIOIKO AITZINKONTUA

Edizio honek 5 milioi

pezetako aitzinkontua du. Eta hori guzia esaltzeko, ahalegin aunitz egin beharrean aurkitzen dira beti antolatzaileak. «*Gehiena gukmuntzen ditugun ostatuetatik ateratzen dugu. Eta horrekin batera, orga-zamaren zozketa ere sarrera inportantea da. Gutien dirulaguntzetatik hartzen dugu*» erran digu antolatzaile batek.

1a 152 milioi erabiliko dira aurten azpiegitura lanetan

151.862.000 pezetako gastua egingen da aurten azpiegitura lanetan.

Zolaberritzei dagokionez, Azpilkuetako Apaioa eta Urrasun auzoetako karrika bazterrak, Elbeteko Karrikatxar eta Erratzuko Gorostapolon egingen dira, guztira 76.352.000 pezetako

inbertsioarekin.

Bide berritzeak berriz, Amaiurko Herriko Bidea, Erratzuko Apate zubian, Azpilkuetako Zuaztoi auzoan eta Elizondoko Iturriagan egingen dira eta Iruritan pareta bat egingen da, eta guzti horretarako, 75.510.000 pezeta inbertituko dira.

ttipi-flash

Zinegotziaren kargu uztea

UPNko Juan Manuel Pedrosa zinegotziak bere kargua utzi du. Antonio Irigoien da bere ordezkoa.

Baztango Udal Plangintzaren

proiektua Carmelo Loperenak idatziko du. Berea izan da bortz proposamenen artean onena, epaimahaiaren arabera. Planaren aurrekontua: 22 milioi pezeta.

Senideak

Euskal presoen senitartekoen erakundeak aurkeztutako mozioa EA eta HBren aldeko botuekin eta UPNren abstentzioarekin onartu zen. Legea betez, Euskal presoak Euskal Herrira ekartzea eta zigorraren hiru laurdenak bete edo gaixotasun sendaezinak dituztenak aske uztea eskatuz.

Garagardo besta

Iruritan II Besta ari dira antolatzen abuztuaren 3rako.

Azterketa Zentrua

Gidatzeko karneta eta arma baimena berritzeko Azterketa Zentrua itxia egonen da uztailearen 24tik 31ra.

Hurrengo astean Elizondoko bestak eta tartean, Frantziako Tourra

Azken honek sekulako ikusmina sortu du eta Arkupeak elkarteakoak Otsondoko gainera joan ziren hurbiletik ikusteko

JOSEBA IGARABIDE

Uztail hasierako egun hotzek ez dute Tourra hurbiletik ikusteko zegoen kitzika batera hoztu. Zahar eta gazte, sekulako jendetza bildu da bide bazterretan Izpegiko gaineretik hasi eta Ikatza-teatik pasatu ondotik, Otsondoko lepotik joan diren artio. Arkupeak elkarteakoak, errate baterako, egun pasa egitekoa zuten Otsondoko lepoan. 300 pertsonendako jarlekuak, komunak, ostatua eta animazio-ne nahiko muntatu zuten.

Santioak Elizondon

Dena prest dago Santioak ospatzeko. Elizondoko Jurado eta kargodunek dirubiltzea egin dute bestak ordaintzeko Elizondoko etxeetan eta Foru Plazako ostatua substanzian eman dute. Besta-egitaraua TTIPI-TTAPA honekin batera duzue.



Erregina eta Sagatsa dantza errekuiperatu da Arraiozen

1936an dantzatu zen azken aldiz Arraiozko karriketan, eta 60 urtez galduta egon ondotik, aurtun, maitzaren 25ean, 6 neska arraioztar ibili ziren herrian barrena etxez etxe dantzatzeko eta abesten dirua eskatu bidenabar. Bildutako diruarekin, elizarako bi kandela erosi zituzten eta gainerakoarekin afari eder bat egin zuten bertako tabernan. Miren Argi Beola, Ana Belen eta Idoia Agerrebere, Ana eta Virginia Oteiza eta Aitziber Mindegiak osatzen dute dantza talde berri hau.

Josu INZIARTE

Oteizaren eskultura

Santiago egunean inauguratuko dute Elizondoko elizako lorategian Jorge Oteizak

herriari oparitutako eskultura. Oteizak, 'Santiagori Otoitza' izenburua paratu dio bere lanari eta berak adierazi duenez ha-

rreman handia du Baztanekin. "Arbaso-ak baztandarrak nituen eta gaztetan Lekarozko ikastetxean egon nintzen 4 urtez".

ttipi-flash

Ehizi-Arrantza Elkarteak

Biltzar Nagusia eginen du larunbatean arratsaldeko 7,30-etan Arizkunenean. Kontu emateak, Narbarte ehiztariek Baztango elkarteak sartzeko egin duten eskaria eta Amaiurko granjaren gorabeherak dira jorratuko dituzten gailetako batzuk.

Erakusketak

Tomas Sobrino pintoreak erakusketa jarri ditu urtero bezala Jaime Urrutia karrikako aretoan. Arizkunenean, bertalde, ikusgai daude Baztango artisaunen lanak eta 'Oroimenerako irudiak: Elizondo 1916-96' izenarekin hainbat argazki.

Doike

Euskara Taldeak aurkezpen ofiziala egin zuen joan den astean Zugarramurdin.

Erratzuko zozketa

Hau idazterakoan agertu gabe zeuden 1.ko eta 2. sariak: 50.000 eta 30.000 pta. Zenbakiak: 984 eta 2438 dira.

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

Uztailaren 22tik aitzinera

MERKEALDIAK

Arropa eta teletan

Ezkontza bazkaritan ematen diren
oroitgarriak egiten ditugu



Pierresenea

OSTATU - JATETXEA

Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

TABERNA ETXEA

Besta zoriontsuak opa dizkie
Elizondorrei

Merkatarien karrika 12, ☎ 450007 - DONEZTEBE

Zugarramurdi

Mendia ondoz eta batez ere laparrez bete da uda parte huntan

Laparren afera izigarri larria bihurtu da ardientzat nahiz eta albaite-roek hasi zaizkien botikak ematen

MARGARI ETA KORO

Uda parte huntan, mendia dugu berri nagusia. Alde batetik, uztaile hasierako euriek lurrak ederki busti eta ondoak mugiarazi dituzte, ez kantidade haundietan bainan zerbaite bildu omen da, batez ere, eremu apaletan eta ez hainbertze mendian goiti.

Bertze aldetik, laparren kontua dugu. Aurten ikaragarrikeria agertu omen da. Mendira egiten den edozein ateralditan, seguraski laparren bat edo bi ekartzen dira etxera.



Orain ardiak libratu direnean, afera larriagoa bihurtu da. Ardi gai-

xoak laparrez bete beteak daude, zenbaitzuk ipurdietan arrak egi-

nak eta dena. Albaite-roak hasi dira botikak ematen animaliei, bai-

nan botika hauek egiten dutena laparrak ez hainbertze kalte ematea da, berez, laparren hortzak larruan sartuan segitzen baitute. Itxura denez, gainera, urtetik urtera lapar gehiago dago.

Afaria gaupasako langileentzat

Azkeneko ttipi-ttapan erran bezala, kontutan hartu uztaileko azken larunbatean, 27an, izanen dela gaupasako afaria Armuan. Egun hortan lan egin zenuten guztiak, jakin ezazue mahaina prest duzuela.

Urdazubi

Urte honetako lehenbiziko sortzea

Joan den urteko uztailez geroztik ez da bertze haurrik sortu

ALIZIA OLAIZOLA

Angel Arozarena Galarregirena uztailearen 2an sortu zen eta berea da urte honetako lehenbiziko sortzea. Joan den urteko uztailearen 10etik, urte bat joan da bertze sortzerik izan gabe.

Bertzalde, eriaroaren 28an, Arkupeak elkarteak antolatutako, erretiratuek besta egin zuten Donezteben urtero bezala. 85 urte beteak dituztenak eta

Urrezko Ezteiak egindutuztenak ere, omen-duak izan ziren. Urdazubitik bagenuen han 50 urte ezkondu dituzten senar-emazteak: Alkerdiko Altzualdegaina etxaldean bizi diren Clemente Suhas Larraia eta Cornelia Laurenzena Barandiaran. Zorionak.

Joan den hilabetean ideki zen Hiribehere auzoan Irigoiena hostal berria. Hamabi ganbara ditu, bakoitza bere bainugelarekin, eta gosariak ere ematen dituzte.



SARA

Udako haurtzaindegia atek ideki zituen uztail hasieran

Duela lau urte sortu zenetik badu erreista, baina oraiko baldintzetan hogoi haur baino gehiago ezin ditu atxiki

MIXEL ETA JACQUELINE

Udako haurtzaindegia bere atek ideki ditu uztailaren 8an eskola publikoan dauden bi prefabrikatuetan. Larrun Ttiki elkarteak kudeatzen du, Josiane Iramuno arduradun, Chantal Jauregi diruzain eta Odile Las-tra eta Christinè Elizalde idazkariak direlarik.

Haurra egun pasa uzteagatik 56 libera ordaindu behar da eta bazkaria, krakada eta ekitaldiak (pottoka, pizina, akanpadak, ibilaldiak eta bertze) barne dira.

Gastuak 50.000 liberetara igotzen dira



lazko udan ateritako argazkia

eta herritik 5.000 libe-ra eskuratzen ditu laguntzaileetarik ukan bertze 5.000 liberekin batean.

Haurtzaindegia

1992an sortu zen eta geroztik erreista biltzen ari du baina oraiko baldintzetan hogoi haur baino gehiago ezin da atxiki.

Dantza ohoretan

Zazpiak Bat dantza elkarteak bere besta haundia uztailaren 20an egingen du plazan. Egun pullita iragaiteko parada, dantza, pilota, soinu artean eta ahantzi gabe ongi jateko aukera. Zuen parte hartzea ongi etorria izanen da. Eskerrak guzieren aintzinetik.

Biharamunean, uztailaren 21ean, gasna eta eskulan azoka izanen da egun guzieren plaza.

Pottoka lehiaketa

Lehiaketa hau uztailaren 20an iraganen da goizeko 9etarik landa errebote be-

riaren ondoan eta jakin dugunaz lehiaketa hau emeeri bakarrik idekia da.

DANBORIENA

**OKINDEGIA
GOZOTEGIA**

© 453403 - ARIZKUN

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA

Michel eta Kattin
Guerendiain

Tfnoa: 59 54 25 19
64130 SARA



**ARMUA
Jatetxea**

Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 91 31 - URDAZUBI



Tel.: 450 133
451 541

Faxa: 450 334

DONEZTEBE

APARAN, S. A.
BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mobleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mobleak eta osagarriak
- KIT mobleak, esku-erremintak, etab...

**GRUPO
ZURICH**



**A SEGURO
OROKORRAK**

Itzea, 4 — BERA
© 63 07 63

EZKONTZAK

Jorge Enderiz Etxarri eta **Marta Contín Zapatera**, Atarrabia eta Iruñakoa, Almandozen, ekainaren 23an.
Fco Jabier Sanz Surio eta **M^a Milagros Azpiroz**, Iruñea eta Zigakoa, ekainaren 29an.
Juan Pedro Redín Ariztegi eta **M^a Maia Antsalas Arregi**, Arraiz eta Iruñekoa, Almandozen, ekainaren 29an.
Oskar Chouza Gago eta **Natalia Blas Santervas**, Iruñea eta Oronozkoa, ekainaren 6an.
Bernardo Villanueva Urabaien eta **Iratxe Saharrea Maisterrena**, Iruñea eta Berakoa, ekainaren 29an.
Felix Rekalde Maritorea eta **Beatriz Trapote Matilla**, Bera eta Donostiakoa, uztailaren 6an.
Juan Antonio Latorre Olmo eta **Be-len Osua Martin**, Alcaudete (Jaen) eta Donostiakoa, uztailaren 6an.

JAIOTZAK

Endika Larralde Olazar, Elgorriagakoa, ekainaren 19an.
Amaia Zelaieta Tomasena, Etxalarkoa, ekainaren 14an.
Iñaki Migeltorena Etxenike, Arizkungoa, ekainaren 23an.
Manex Erneta Yeregi, Elizondokoa, ekainaren 22an.
Sukil Etxenike Arizaleta, Elizondokoa, ekainaren 24an.
Andoni Karrikaburu Rekarte, Arizkungoa, ekainaren 28an.
Javier Garde Lurnaga, Arraiozkoa, ekainaren 29an.
Fermin Estanga Santesteban, Doneztebekoa, 25 junio.
Andoni Irazoki Mikelarena, Doneztebekoa, ekainaren 30ean.
Itxaso Elizetxe Mariezkurrena, Leitzakoa, ekainaren 30ean.
Baptiste Latasa, Sarakoa, ekainaren 26an.
Angel Arozarena Galarregi, Urdazubikoa, uztailaren 2an.

HERIOTZAK

Fco. Elizondo Telletxea, Urrozkoa, uztailaren 4an, 83 urte.
Fidel Untxalo, Goizuetakoa, uztailaren 5ean.
Dionisio Saturnino Etxegarai Etxegoien, Amaiurkoa, uztailaren 5ean, 86 urte.
Pedro Jose Ariztegi Iziaga, Erratzukoa, uztailaren 7an, 83 urte.
Marie Paule De Castro Magalhaes Azkarraga, Sarakoa, ekainaren 25ean, 36 urte.
Marie Thérèse Errandonea, Sarakoa, uztailaren 5ean, 86 urte.
Denise Fox, Saran, uztailaren 1ean, 65 urte.
Nicole Fautray, Saran, uztailaren 8an, 65 urte.
Jose Otxandorena Petrikorena, Donamariakoa, ekainaren 29an, 85 urte.
Anttoni Eraso Estanga, Aresokoa, maiatzaren 21ean, 71 urte.
Antton Gereño, Aresokoa, ekainaren 16an, 73 urte.
Julia Garcia Otxandorena, Doneztebekoa, ekainaren 18an.
Diego Garcia Otxandorena, Doneztebekoa, ekainaren 21ean.
Luisa Garcia Otxandorena, Doneztebekoa, ekainaren 28an.

1996an jaiotakoei **TOPELIBRETA**
 3.000 pezetarekin eta **TOPEBABERO**
 polit bat oparitzen diegu. Amendako
 "Está creciendo" liburua daukagu.
IRUÑEKO KUTXA
Fundazioa

IGANTZIKO UDALA

OIHAN ENKANTEA

%10eko Beherapenarekin



Igantzi Udalak, %10eko beherapenarekin bigarren enkante publikoa iragartzen du, ondoko oihan probetxamendu hau saltzeko:

LOTE BAKARRA: 1.177haritz amerikano, platan, gaztainondo eta arkazia, Pionborda eta Harrobi izeneko alderdietan, 838 metro kubiko zur egiten dutenak. Hasierako prezioa (%10eko beherapenarekin): 6.967.350 pezeta.

Enkantean parte hartu ahal izateko Enpresa Sailkapen Agiria eta Udal Diruzaintzan hasierako prezioaren %5, behin-behineko fidantza gisa, utzi izanaren gordekina aurkeztu behar dira.

Proposamenak, Udal Idazkaritzan aurkeztuko dira, iragarki hau Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta biharamunetik kontaturik hamabosgarren laneguneko eguerdiko hamabiak baino lehen. Pleguak hurrengo laneguneko eguerdiko hamabietan irekiko dira.

Baldintza tekniko eta ekonomiko-administratiboen pleguak Udal Idazkaritzan daude interesatuen eskura.

*Igantzi, 1996ko uztailaren 1ean
 Alkatea, Juan Jose Txoperena Matxikote*

M^a Dolores Miñana
TOPOGRAFOA

NEURKETA • PLANOAK



Lur neurketak, Luberriak
 Plantazioak, etab...
 ☎ 580143 - 989.445986
 Santiago 68, 3. esk. **ELIZONDO**



**Eguneko
 menua
 eta karta**

**SANTAMARIA
 Jatetxea**

**Espezialitatea euskal
 sukaldaritzan**

Nagusia 30, Tf.: 45 00 43
DONEZTEBE

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta Urgentziak 112/088

Osasun Zentruak

Elizondo 452367 / 580235

Doneztebe 450300

Lesaka 637428 / 637336

Leitza 510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako Ospitalea 102100

SSko Urgentzi

Zerbitzua 246750

Virgen del Camino

Erresidentzia 109400

Gurutze Gorria 226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea 614600

Gipuzkoako ospitalea 460299

Erresidentzia 453800

Anbulatorioak

Irun 630264 / 621106

Anbulantziak

Oitz 450242 / 450805

DYA

Lesaka

(Larrialdiak) (943) 464622

Doneztebe

(Larrialdiak) 171717

FUNERARIA

Doneztebe 450475

Elizondo 580924

Lesaka 637404

Suhiltzaileak

Oronoz-Mugairi 592255

Garraioak

Bidasotarra 631150

Baztanesa 580129

Leitzaran 515018

Aberiak:

Iberdrola 450335 / 450336



Lehiaketetan parte hartu duten neska-mutikoak sariak jaso ondotik

Argazkia: Joxe LACALLE

Literatura, antzerki eta dialektologia lehiaketetako sari ugari eskualdera

Emandako 36 sarietatik 10 eskualdeko idazleendako izan dira

Hezkuntza Sailburuak Literatura, Antzerki eta Dialektologia eta Etnografia lehiaketetako sariak banatu zituen ekainaren 26an. OHO eta Ikaskuntza Ertaintako ikastxeetako neska-mutikoei zuzendutako lehiaketa hauetara 487 lan aurkeztu ziren Nafarroa osotik, eta horietatik 36 izan ziren sarituak. Eskualdetik aurkeztutako lanek ere

izan zuten beren saria.

SARIDUNAK

DBHko zentrueri zuzendutako mailan, olerkigintza sailan Goizuetako eskolako M^a Jose Zubirik irabazi zuen lehen saria (50.000 pta).

Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailakoen artean, Azpilkuetako eskolako Izaskun Danboriena, Ana Irungarai, Joseba Kortena eta Aintzane Mariezkurrenak

jaso zuten narratibako lehen saria (50.000 pta).

Ikaskuntza Ertaintako 1. eta 2. mailetan, Eneritz Arozena goizuetarrak eraman zuen 75.000 ptako lehen saria eta Noelia Linares lesakarrak bigarrena (60.000). Ikaskuntza ertaineko goi mailetan, Itziar Mitxelena bertarrak jaso zuen lehen saria ipuinetan (75.000)

Antzerkigintzan,

Arantzako eskolak originaltasunari eta Leitzaokoak jantzi onenei emandakoa jaso zuten.

Dialektologia eta Etnologia lehiaketan, DBHko lehen eta bigarren sariak Berako Toki-Ona Institutuko Nerea Maia eta Miren Zudairek jaso zuten eta Ikaskuntza Ertaintan, Eneritz Arozena goizuetarrak hirugarren saria lortu zuen.

FUNERARIA ZERBITZUAK DONEZTEBEN



MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
Iruña-Donostia-Irungo ospitaletatik
edozein herritara trasladoak
Tfnoa: 63 74 04 • LESAKA
Tfnoa: 45 04 75 • DONEZTEBE

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

Bera ☎ 630735 • IRUN ☎ (943) 622305



BLANCO ANAIK, S.L.

MARMOL eta GRANITOAK

Sukalde entzimerak • Bainua • Hilerrria

BERA - Kanttonberri 4, ☎ 631052
IRUN-(943) 631084 • LEZO(943) 529390



Haizegoa Ostatua taldeak irabazi du Bortzirietako futbito txapelketa

Etxalarko taldeak 6-2 irabazi zion ekainaren 29ko finalean Lesakako Zama Bat taldeari

Etxalarko jokalariekin osatutako Haizegoa Ostatua taldeak irabazi du aurten Beti Gazte elkarteak antolatutako Bortzirietako futbito txapelketa, ekainaren 29an, Lesakako Irain pilotalekuan jokatu zen finalean Zama Bat herriko taldeari 6-2 irabazi ondotik.

Etxalartarrek, txapelketa osoan barna erakutsi duten nagusitasuna –partidu guziak irabazi baitituzte– agertu zuten finalean ere eta 5-0 aitzinetik egon ziren. 5-2ra hurbildu ziren lesakarrak baina finala bukatzeaz zegoela, Ignacio Lasagak txapela kentzeko moduko gola sartu zuen, azken emaitza ezarritz.

Sari nagusiaz eramateaz gain, Javier Larrui taldekideak lortu du goleatzaile onenaren saria, 17 golekin. Matias eta Manuel Telletxea, Javier Larrui, Asier Arburua, Ignacio Lasaga, Joseba Aranburu, Patxi Indaburu eta Borja Garciak osatu dute taldea.



Haizegoa Ostatua bere nagusitasuna erakutsi du txapelketa osoan barna eta partidu guziak irabazi ditu Arg.: Aitor

Finalaren aitzinetik hirugarren eta laugarren posturako norgehiagoka jokatu zen Maula eta Los Taurinos talde lesakarren artean. 6-4 irabazi zuen Maula taldeak.

Guztira hamabortz taldek parte hartu dute aurtengo edizioan, 8 Lesakakoak, 5 Berakokoak eta Etxalar eta Aranzako bana.



Zama Bat izan zen bertze finalista Aitor



Maulak hirugarren postua eskuratu zuen Aitor



Taurinos taldea laugarren gelditu zen Rafa

BOITE

prenton

- ❖ **Idoia Mariezkurrena**
Beintza-Labaiengo atletak Espainiako jabalina jaurtiketa txapelketa irabazi berri du Malagan. Pamplona Atletico taldean ari den Mariezkurrenak 55,02 metrora bota behar izan zuen jabalina urrezko domina jantzi ahal izateko.
- ❖ **Baztan futbol taldeak**
1.564.247 pezetako defizitarekin bukatu du azken denboraldia, nahiz eta aitzinetik zuen diru galera 350.000 pezetan jeitsi. Datorren denboraldian bortz lehenbizikoen artean gelditzen badira, Zuzendaritza Batzordeak Mallorcarako bidaia eskaini die jokalariei.
- ❖ **II. San Fermin Xake lehiaketa**
Ekainaren 30ean jokatu zen Beti Gazte elkarteak antolatutako xake edo ajedrez lehiaketaren bigarren edizioa. Guztira 19 xakelari aurkeztu ziren, 11 Lesakakoak. Taldeka, Oreretako Fomento Cultural taldea izan zen txapelduna, Tolosako Xake Elkartea eta Beti Gazte aurkeztu zituen hiru taldeen aitzinetik. Bakarka ere, lehen hiru postuak Oreretakoentzat izan ziren (Gonzalez, Urretabizkaia eta Acosta). Lehen lesakarra Agustín Santos sailkatu zen, 4. postuan. Epaile lana Javier Oartzabalek bete zuen.

Eugi igantziarrak marka berria ezarri du lasto altxatzean

Ekainaren 30ean, Iruñeko Peñen Egune-ko ospakizunen barnean, eta Nafarroako Herri Kirol Federazioak antolatutako, Nafarroako Iparraldeko Joku txapelketak ospatu ziren San Francisco Plazan.

Lehenik koxkorbiltze txapelketa jokatu zen. Nesken artean Leire Razkin suertatu zen garaile eta mutiletan Jaime Etxegarai.

Harrijasotze txapelketan Patxi Larretxeak eta Mitxel Latasak hartu zuten parte. Larretxeak 23 jasoaldi eman zizkion kopa harriari eta Latasak 21.

Lasto altxatzean, Eduardo Eugi igantziarra nagusitu zen eta horretaz gain, Nafarroako errekor berria ezarri zuen, 45 kiloko fardoari 17 jasoaldi eman ondoren. Gibeletik Migel Angel Etxarte eta Luis Mari Zelaieta gelditu ziren. Orga jokoa Mielanjel Etxegarai izan zen txapeldun, jogan den urtean bezala, Bixente Goia eta Juanxo Petrirenaren aitzinetik. Ingude txapelketan Sebastian Telletxea nagusitu zen 81 jasoaldi eginez. Txingalarien artean, Marta Gartzia eta Patxi Larretxea gailendu ziren. Arratsaldeko azken proba zakulari txapelketa izan zen. Nesketan Etxauri Haranako taldea izan zen azkarrena eta mutiletan, berriz, Ultzamakoa.

Nafarroako «Iparraldeko Jokuak» txapelketa		
Lasto altxatzea	Eduardo Eugi (Igantzi)	17 jasoaldi (2')
Orga jokoa	Mielanjel Etxegarai (Bera)	3 bira-3/4-5,92m.
Harrijasotzaileak	Patxi Larretxea (Arantza)	23 jasoaldi (2')
Ingude altxatzea	Sebastian Telletxea (Arraioz)	81 jasoaldi (1'30")
Txinga eramatea	Patxi Larretxea (giz.)	16 plaza
Txinga eramatea	Marta Gartzia (emak.)	19 plaza, 15 m.
Kozkor apustua	Leire Razkin	2'30" (20x1,25)
Kozkor apustua	Jaime Etxegarai	6'43" (25x2x1,25)



Bestetan gehien eramaten dena



Besta zoriontsuak!!



CAJA RURAL DE NAVARRA

ERREZETA

Patata beteak



Osagaiak 4 pertsonendako

- 16 Patata koxkor
- Betegarria: (haragi xehetua, oilaskoa, arraina...)
- Saldarako: tipula, baratxuria, piper berdea, tomatea...

Prestatzeko modua

Patatak zurutu ondotik, alderik zabalean zulo bat egin eta patata hustu, horretarako bada tresna berezi bat. Barrendik atera-

tzen dugun patata mami gerorako gorde. Betegarria nahi denarekin egin, adibidez, aurreko eguneko sobra batzurekin. Patatak bete eta gelditzen den zuloa lehen gorde dugun patatarekin estali. Irinan pasa eta zartagian gorritu. Salda egin eta gero pasapure batetik pasa. Ontzi zabal batean, patata go-



Carmen GARCIA

La ASTURIANA
Jatetxekoa
• ELIZONDO •

rrituak jarri, gainetik salda erantsi eta patatak tapatu arte ura bota. Patatak egiteko 30 bat minutu behar izanen dute.

On egin!

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- Zerrikumea (20 kilokoak): 6.300 pzta.
- Zerri gizona (95-100): 230pzta/kilo
- Zerramak: 120-130 pzta./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- Aretze gizenak:
- Idixkoak: Pzta./kg. Kanal Extra 540
1.koa 510
2.koa 480

- Urruxak: Pzta./kg. Kanal Extra 550
1.koa 520
2.koa 480
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruzentzako.
- Aretze tikiak (15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 18.000 eta idixkoak 27.000 Pzta.
Mestizoak: urruxak 27.000 eta idixkoak 35.000 Pzta.
- Behi zaharrak:
Behi nabar gizona: 360 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 420 Pzta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIAK: EHNE,
ZUBIRIA MINDEGIAK...



❖ FRUTONDOAK ❖

- Hiru urteko landare bakoitza
- Bertako sagarrondoak 950.
 - Udareondoak 950 pzta.
 - Gereziondoak 1.050 pzta.
 - Aranondoak 1.050 pzta.
 - Muxika 880 pzta.
 - Urritza 880 pzta.



❖ LANDAREAK ❖

- Porruak zientoa 400.
- Tipulak zientoa 800.

BESTAK

ELIZONDO

► **Uztailaren 24tik 28ra** Xehetasunak aparteko gehigarrian.

ITUREN

► **Uztailaren 19tik 23ra** Xehetasunak 16. orrialdean.

ELGORRIAGA

► **Uztailaren 24tik 28ra** Xehetasunak 17. orrialdean.

ARANO

► **Uztailaren 24etik 28ra**

ERAKUSKETAK

ELIZONDO

► **Uztailaren 8tik 30a artio** Baztango Artisauen eskulanak erakutsiko dira Elizondoko Arizkunenea Kultur Etxean.

► **Uztailaren 24tik 30a artio** 'Oroimenerako irudiak, Elizondo 1916-96' erakusketa zabalduko da. Antolatzailea Elizondoko herria.

► **Uztail eta abuztu**an Tomas Sobrinoren pinturak ikusgai Jaime Urrufia Karrikako aretoan.

koxkonta



Ezkontza,
bataio eta
bileretarako
leku egokia

Deitu
erreserbak
egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 • LESAKA

B RADIO BIDASOA

SATELITE EKIPOA

CANAL + era abonatuak
14.900Pta. (BEZa barne)

CANAL + era abonatuak ez
daudenak
19.900Pta. (BEZa barne)

Eztegara 14 • 630377 • BERA

KONTSUMITZAILEENDAKO AHOLKUAK

Elektragailuen garbiketa eta manteninendua

Nahiz eta elektragailuak eguneroko lana errazten digun, maiz, lana ere eragiten du hauen garbitzeak eta mantenimenduak. Aholku praktiko batzuk emanen ditugu labeen garbiketari buruz. Lehendabizi labe ezberdinetan erabiltzen diren garbiketa sistema azalduko ditugu.

Esmalte disdiratsua duten labeak.

Ez dute garbiketa sistema berezirik, garbiketa eskuz eginen dugu aurrerago adieraziko den bezala.

Labe katalitikoak autogarbitzekin.

Labearen zenbait paretek akabera zakarra dute, brilorik gabea. Pareta hauek zikinkeria xurgatzen dute, itxura ez du garbiarena preziki. Xurgatzeko ahalmena akitzen denean, pareta hauek aldatu egin behar dira.

Labe pirolitikoak autogarbitzailea.

Labe hauek zikinkeria erretzeko programa berezi bat dute, honen bitartez 500° ko tenperatura lortzen dute zikinkeria errautsa bihurtuz. Geratzen diren honda-



Labeak garbitzeko sistema desberdinak daude

kinak trapu heze batekin bildu behar dira.

Garbiketa sistema duten bi labeen artean, katalitikoak ez du azeptazio haundiegirik duen errendimendu eskasarengatik, pirolitikoek berriz, onarpen ona dute baina oso garestiak dira 200.000 pezeta inguru.

ESKUZ GARBITZEKO SISTEMAK

Amoniako lurruna.

Ontzi batean ura 2/3 eta amoniako 1/3 nahasi. Labea 15' piztu 250° tan eta itzali. Prestatutako nahasketan labean sartu eta gau osoan zikinkeria bigundu ahal izateko utzi, trapu heze batekin garbitu.

Labe garbikariak.

Koipea kentzekoak direnak eta metala hondatzen ez dutenak bakarrik erabili. Garkaria bota eta 15' utzi lan egiten. Gero garbitu.

Lurruna. Vaporetarekin egiten ahal dena. Sistema ona da baina elektrogailu garestia da.

BORTZIRI

ASISTENTZIA TEKNIKORAKO ZERBITZUA

BORTZIRI
ASISTENTZIA TEKNIKORAKO ZERBITZUA
Tfnoa: 63 10 91
Iturlandeta, 1 • 31780 BERA

CANAL

Televés

GISA GUZIETAKO ANTENEN INSTALAZIOA:

- Kolektiboak
- Indibidualak
- Parabolikoen instalazioa 50.000 Ptatik. aitzinera.

Aurrekontuak konpromisurik gabe eskatu

AGENDA EGUNEZ EGUN

LEHIAKETAK

SARA

► **Uztailaren 20an** Pottoka Lehiaketa goizko 9etatik landa errebote berriaren ondoren.

OSPAKIZUNAK

SARA

► **Uztailaren 20an** Zazpiak Bat dantza taldearen besta nagusia plazan.

► **Uztailaren 21ean** Gasna eta eskulan azoka plazan.

ELIZONDO

► **Uztailaren 21ean** Baztandarren Biltzarra. Xehetasunak 20. orrialdean.

DONEZTEBE

► **Uztailaren 20an** Nekazal Produktuen Azoka. Antolatzailea Bertiz Partuzergo Turistikoa.

LEITZA

► **Uztailaren 25, 26 eta 27an** Asketa Abesbatzaren programazioa. Ikus 19. orr.

GUARDIAKO BOTIKAK

► **Uztailaren 15etik 21era** Lesaka, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Leitza eta Goizueta.

► **Uztailaren 22tik 28ra** Bera, Ituren Elizondo (Iturralde) eta Goizueta.

► **Uztailaren 29tik abuztuaren 4ra** Etxalar, Narbarte, Elizondo (Lezaun), Urdazubi eta Goizueta.

ETXEBIZITZAK

BERA. 89 m²ko pisua salgai, Iturlandeta, 6-2. solairuan, 'Moliner' blokeetan. Prezio negoziagarria. ☎ 630455.

Borda salgai, Leitza inguruan. Prezio negoziagarria. ☎ 306502.

BARAÑAIN. Pisua alkilerrean emanen nuke, bi lagunendako, Iparraldeko Plaza Etorbidean. ☎ 188271 (Roxa, goizeko 9etatik arratsaldeko 5etara).

LESAKA. 90 m²ko pisua eta kotxea sartzeko moduko bajera salgai. ☎ 637306 (Arratsetan).

ELIZONDO. 110 m²ko pisua salgai. ☎ 580956.

ELGORRIAGA. Etxe polit bat salgai. ☎ 908.778653.

Borda edo baserria erosi-ko nuke Baztan-Bidasoan. ☎ 989.583894. Juanxo.

BAZTAN. Baserria salgai. Deitu gauetan. Jon. ☎ 948.721112.

DENETARIK

Brontzezko lanpara salgai, 6 besokoa. ☎ 637787.

Giltza sorta bat galdu dut Lesakan ekainaren 22 edo 23an. ☎ 637132.

Grundig **telebista** salgai, 25 pulgadakoa. ☎ 637217.

Madrileko AC/DCren kon-
tzenturako sarrera salgai,
prezio berdinean (3.500 pe-
zeta). ☎ 635290.

Organo haundia Kawasaki
markakoa salgai. Ehun soi-
nu ezberdin. ☎ 630418.

Elgorriagako bainuetxea
ezagutu, lan egin edo isto-
rioren bat konta diezadake-
ten pertsonen bila nabil. ☎
943.285729.

Bi giltza bere giltzariare-
kin batera agertu dira Etxa-
larko Axolorronean. ☎ 635166.

LESAKA. Lokala salgai,
58m²koa. Arras merke. ☎
637453.

Iruñean lau pertsona behar
dira pisu eder bat osotze-
ko. UPNAtik 15 minutu-
ra. ☎ 592026. Arratsaldetan.

150 liburu inguru saltzen
ditut Beran. ☎ 631088.

Sanferminetan txaketa ba-
kero gorria galdu dut. Bar-
nean bazuen BBKko txarte-
la eta dirua. ☎ 94.4760927.

AZIENDAK

Griffon Korthal arrazako
zakurra salgai, 6 hilabete-
koa, ama eta aita oilagor
ehiztariak. ☎ 599114 (arra-
tseko 9etatik 12,30etara).

Collie arrazako hiru za-
kurkume salgai, hilabete
t'erdikoak. Oso merke. ☎
943-621424.

Dalmata arrazako zakurra

salgai. 4 hilabete ditu. Pre-
zio negoziagarria. ☎
631430.

Ahari bat salgai, mutur go-
rria eta bi urtekoa. Eguerdian
eta gauetan deitu. ☎
610638.

IBILGAILUAK

MENDAUR MOTOR

☎ 450333 • DONEZTEBE

Suzuki luze bat, Land Rover
Ligero. Laburra eta Luzea.
Kotxeen tapizeriak garbitzen
dira eta ezkontzetarako
prestatzen dira.

Nissan Vanette, NA-AC,
gasoilezkoa, salgai. Prezio
hagitz onean. ☎ 631270
(uztailaren 23tik aitzinera).

Ford Orion 1.6 Diesela sal-
gai. NA-O.. ☎ 948-510460
943-683067.

AUDI SAMPI ARAGON

Bigarren eskuko autoak,
furgonetak eta mendiko
autoak erosi-ko nituzke.
Eskura ordaintzen da.

☎ 45 03 54 • DONEZTEBE

LANA

**Solfoe eta akordeoi kla-
seak** emanen nituzke uda
partearen. ☎ 635045.

Neska batek uda partean
lan eginen luke Bortzirietan,
haurrak zaintzen. ☎ 637179
(Amaia, 8etatik aitzin).

Iturenen piano, solfeo eta
teklatu klaseak ematen di-
ra. Esperientziaduna. ☎
450249 (Garbiñe).

Berako neska batek udan
haurrak zaintzen lan egi-
nen luke. ☎ 631354 (Viki).

Neska batek klase parti-
kularrak emanen lituzke
Baztan inguruan. ☎ 585078
Garazi.

Urdazubiko ikaburua ja-
tetxean neska behar da uz-
tailaren 15etik abuztu onda-
rreraino. ☎ 599222.

Neska euskaldun batek lan
eginen luke haurrak zain-
tzen. Esperientziaduna.
Lesaka edo inguruetan. ☎
637226 (Miren).

Mutil bat eskaintzen da he-
rrietako bestetan ostatuan
lan egiteko. ☎ 637911 Jose
M^a.

Etxeko lanak egiteko eta
haurrak zaintzeko, perso-
na arduratsua behar dut.
Hobe euskalduna bada. ☎
631422.

Klaseak emanen nituzke
udan. Euskara, maila guz-
tietan, solfeo, matematika,
fisika, kimika eta elektroni-
ka. Iruritan edo Oronozen.
☎ 592296 edo 452188.

AGURRAK

Gartzaingo Patrizioaren par-
tez, Irurritako Santi arras ona
zaude.

Zorionak Etxalarko Maria
Semper-i, uztailaren 6an
14 urte bete zituelako. Bere
kuadrilaren partez.

Urrotzko Maite, Josune,
Ana eta Mariari: arras ma-
jak zarete, eta horrela se-
gitzea espero dugu.
Gainera oso onak zaude-
te. Ez izan Urrotzko 3 so-
sitak bezala eta segi bes-
ta egiten eta beti bezain
juergistak. Ez aldatu me-
sedeze! Zuen atzetik joaten
diren 4 mutiko.

Irurritako Pilartxorentzat:
Oso ona zaude. Zutaz mai-
temindurik nago eta zure-
kin atera nahi dut. Ez dut
galduko itxaropena. Oskar
T.

Garbiñe Larralderi zorio-
nak. Hilabete honen 19an
betetzen ditu urteak. El
Salvador-en dago eta be-
re familiak zoriondu eta be-
sarkada haundi bat eman
nahi lioke. Eskerrik asko.

Zugarramurdiko Garbiñe
Mihurari: zorionak zure ur-
tebetetze egunean. Zure la-
gunak.

Igantzik Ana eta beren
lagun Mañolori zorionak eu-
ren urtebetetze egunetan.
Kunde.

Doneztebeko Bordari:
Lesakako neska baten par-
tez muxu bat eta ea mai-
zago ikusten garen.



RUIZ MOBLEAK

Amezti-Merkatari 16
Tel. 45 01 10
DONEZTEBE

KOLTZOIDENDA BERRIAK

Koltxoiak, arko eta kajoidun
somierak, tolesgarriak,
artikulatuak eta erriendako egokiak

ZABALPEN ESKAINTZAK
7.000 pta bitarteko aurrezpena

FLEX BANATZAILE OFIZIALA



ZUENDAKO MOBLEAK

Jaime Urrutia 36
Tel. 58 02 02
ELIZONDO



EZKALO

Jose Antonio Elizondo Jauna • API 129
 INFORMAZIOA: 451518 (Doneztebe) • 23 48 30 (Iruñea) • 908.77.76.96
 Larunbat eta igandetan zabalik ordua eskatuz gero

Bera. • 140 m²ko etxebizitza salgai. 12.500.000 • Txalet berria lur eremuarekin salgai.

Leitza. • Kontsulta-etxebizitza, edo bulegoak parartzeko egokia den etxebizitza salgai. 5 logela, 2 bainu oso eta komuna bat, egongela txiniarekin, 160 m² ganbara, gasoilezko kalefakzioa. • Etxebizitzak 6.000.000 aurrera.

Zubietza. • Etxebizitzak salgai estrenatu gabeak. Kalefakzioa.

Legasa. • Etxebizitza salgai garage eta baratzearekin. Prezio negoziagarria • 50 m²ko bajera salgai. 4.200.000.

Irurita. • Etxebizitza salgai, garajea eta 40 m²ko bi terrazakin. 8.800.000 Ptatik.

Doneztebe. • Azken etxebizitzak kalitaterekin horenean eraikiak salgai. Ginea eta gatzain zurgintza, Climalit kristalak, Bainua hidromasaiarekin, Banakako propano kalefakzioa, 20 m² ganbara. • Laister 2.000 m² pabilioiak eraikiko dira Aparanen.

Elbete. • Etxea garajearekin salgai.

Ezkurra. • Etxea nekazalturismorako egokia salgai. • Etxea salgai, 1.000 m² lur eremuarekin.

Sunbilla. • Etxea baratzearekin salgai. 7.000.000. • Etxaldea lorategiarekin salgai.

Donamaria. • Etxea salgai

Narbarte. • Luxuzko etxebizitza, sukalde hornitua. 10.500.000.

Sesma. • Lizarratik 20 km. kobazulo-etxea lorategiarekin salgai. 6.500.000 pta.

Donostia. • Apartamendua Groseko hondartza ondoan salgai. 11.500.000.

Burlata. • 120 m² etxebizitza salgai. 1. solairua, eguzkitsua, 3 logela, sukalda, bainua, sala. 12.500.000.

Pueyo. • Iruñeatik 30 ' tara, etxe habitagarria salgai. 8.000.000.

Luzaide. • Baserria, 8 Ha.ko lur eremua, eta bi bordarekin saldu edo aldatzen da, Elizondo-Donztebe aldeko etxebizitza batekin.

Hendaia. • 36 m²ko apartamentua salgai. Topo estazioaren parean. 6.000.000 Pta.

Subiza. • Txaleta salgai.

Baserriak salgai. • Elizondo, Almandoz, Etxalar, Lesaka, Erro, Sara.

Bordak salgai. • Erro, Otxagi, Ultzama, Zubietza, Errazkin, Leitza, Aldaz, Otxondo, Ituren, Ezkurra, erratzu, Goizueta, Iruñea, Labaien.

Ituren. • Etxebizitza baratzearekin alokatzen da. 50.000 Pta. hilean.

Elgorriaga. • Etxea alokatzen da. 50.000 Pta. hilean.

Gatzelu. • Etxea, lur eremuarekin alokatzen da. 55.000 Pta. hilean.

Doneztebe. • Etxebizitza moblezatua eta kalefakzioarekin alokatzen da. 45.000 Pta. hilean.

Legasa. • Etxebizitza alokatzen da. 35.000 Pta. hilean.

Iruñea. • Tajonar karrigan etxebizitza alokatzen da. 85.000 Pta. hilean. • El Carmen karrigan etxebizitza moblezatua alokatzen da. 55.000 Pta. hilean. • 90 m² bulegoa alokatzen da.

Etxeak, baserriak, etxebizitzak, bordak eraikigarriak diren lur eremuak, pinadiak, hariztiak, pagadiak, baserriko edozein altzari edo tresna erosiko nituzke.

Etxe osoak (eraikuntzak, mogleak, lur eremuak) tasatzen ditugu.

Igeltsero, etxegile, zurgin, iturgin, elektrari, eskabazio, notario, abokatu, arkitektu eta dekoratzaileak ditugu zure zerbitzura.

Konpromezurik gabeko aurrekontuak egiten dira Nafarroa osoan.

BADAKIZU ZERGATIK PILOTU ONENEK PNEUMATIKOAK RENAULT-en ALDATZEN DITUZTEN BETI?



Pneumatikoak
5.845
 Ptatik aitzin BEZ eta muntaia bame

Eskaintza baliagarria Abuztuaren 31 bitarte

MARKA/NEURRIA	145/80/13	155/80/13	165/70/13	175/70/13	185/65/14	185/65/14H
GOOD YEAR GT	5.845	6.650	7.590	8.095	10.265	13.590
MICHELIN CLASSIC	6.505	7.485	8.340	9.150	10.780	
MICHELIN ENERGY			10.325	10.920	13.105	18.505

Konpetizio egoera gogorrenetan profesionalek, euren segurtasuna garrantzia frogatu eta haundiena duten marken esku bakarrik uzten dutelako. Eta hori geure instalazioetan egin dezakezu. Esperatu gabe eta profesional onenekin.

PEDRO GARMENDIA, S.A.
 Errep. z/g - Tfnoa. 58 04 31 ELIZONDO

TALLERES SANTESTEBAN
 Leitzako Errep., 1 kma - Tfnoa. 45 02 82 DONEZTEBE

SEMPER HNOS., S.L.
 Irun - Iruña Errep. - Tfnoa. 63 06 21 BERA



RENAULT
 EL PLACER DE VIVIRLOS



**BESTA
ZORIONTSUAK !!**